



«Medikuen
artean
klima
moralak
aldatzen
ari da»

**Koldo Martinez
Urionabarrenetxea**

- **Kartografia** Interesek desitxuratutako mundua
- **Lekuz Leku jaialdia** Nazioarteko dantza garaikidea kalean ikusteko aukera, Bilbon
- **Ihesi** Aratz, Arabako gailur ezezaguna
- **Nel Vidal Barral** «Justizia soziala da galegoa defendatzea»
- **Nafarroa 1512** Konkistaren ondoren, erregerik gabeko iraganaren bila

Aste honetan...



Beranduegi.tv



► Beranduegi datorren albistegia

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari: Sorturen legalizazioa, Iñaki Azkuna munduko alkaterik onena, Rajoy Salomon irletako presidentea...



► EHZ badator

17 urte igaro dira Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren ibilbidea abiatu zenetik, festibala ezaugarritzen duten zutabeak urtetik urtera indartuz: kulturaren sorkuntza, konpromisoa, euskara eta herrikoitasuna.



► Bruno Fay

Euskal Herrian bizi den freelance kazetaria. Historian eta kazetaritzan lizentziatua, prentsa idatzirako (Science et vie, L'Express, Le Parisien, Sud-Ouest...) zein telebistarako (Arte, Canal+) egiten du lan. Oraintsu emititu berri den "GAL: des tueurs d'Etat" dokumentalaren egilea da Xavier Muntzekin batera.



Lehiaketa

Hilabetez luzatu zaigun Facebook bidezko lehiaketari amaiera eman diogu irabazlea zein den esanda. Bidaniako (Gipuzkoa) Iriarte Jauregira asteburupasa joango den zorte handiko gizona **Ion Martinez** izango da. Zorionak!
Lehiaketak irailera arte hartuko du atsedena.



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko uztailaren 1a, 2.329. zenbakia

Deabruaren abokatua

• **Giorgio Bassmatti:** «Donostian gehien entzuten den musika pintxo tabernetako diru-kutxena da». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

• **Kartografia.** Errealitatea deformatzeko artea. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 5

Pertsonaia

• **Koldo Martinez Urionabarrenetxea:** «Medikuengan kezka ikusten nuen legalitatearen inguruan, baina ez etikaren inguruan». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

• **Tim Russo:** «Monopolio mediatikoari erresistentzia egiteko baliagarri dira irratiko komunitarioak». HARTZEA LOPEZ ARANA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ama eta emaztea.** BEA SALLABERRY / 20
- **Txandan** Heteroa. EDU ZELAIETA / 20
- **Goresmenak** Aitor! IXABEL ETXEBERRIA / 21
- **Zirtak** Zilarrezko zela. JOSE INAZIO BASTERRETXEA / 23
- **Bertso berriak** Erreskateari jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 24

Erdiko kaiera

- **Herbert von Karajan.** Nazismoak haizatutako orkestra zuzendaria. HEDO I ETXARTE / 25
- **Lekuz leku VIII. Nazioarteko Jaialdia Bilbon.** Hiriko paisaia dantza garaikidearen eszenatoki. MYRIAM GARZIA / 28
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** UNAI BREA / 33
- **Ihesi Aratz-Umandia (Araba).** Aratzeko gailurra eta askoz gehiago. GORKA AZKARATE / 34
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 38
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 40
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 41
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 42

Termometroa

- **Nafarroako konkista.** Artzain gabeko ardiak bezalaxe? SANTI LEONE / 43
- **Nel Vidal Barral, Hizkuntza Normalizazioaren Langileen Koordinadorako presidentea:** «Galizian, izan al zaitezke feminista gaztelaniaz biziz?». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 48
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 49

Azkena

• Gure estrategia sendoa. BIXENTE SERRANO IZKO / 50



“Donostian gehien entzuten den musika pintxo tabernetako diru-kutxena da”

Giorgio Bassmatti

Pop ziklotimikoa egiten duen musikari espresa.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Aizu, nola egiten dira abestiak tortilla bat prestatzeko behar den denboran?

Bada, bi arrautzarekin. Beno, orain denbora gehiago ematen dut abestiak egiten, arratsalde bat edo. Ideia argia da: zuzenean agertzen ez bada, bizpahiru ordutan, ez da ona izango.

Ados, eta nola egiten da gero jendeak abesti horiek entzuteko?

Hori berdin zait. Nik abestiak egiteko beharra daukat. Saltzea berdin zait. Onena promozio merkea egitea da: Youtube, webgunea, bandcamp, sare sozialak... *Huffington Post*-eko eredia ere har dezakezu: dohain jo promozioagatik.

Zuk ez duzu behar: Jerome Kerviel brokerraren abestiak mundu mailako fama ekarri zizun.

Famaren hamabost minutuak erre ditut dagoeneko? BBCn agertu nintzen, *Diario Vasco*-n, *Público*-n eta Poloniako aldizkari batean! Amak behintzat hainbeste gaupasa egiteak zerbaiterako balio izan duela ikusi zuen.

Hala ere, pop oso intimista da zurea azkenaldian: ahots apala, gitarra soila eta bizpahiru lagun publikoan.

Egia intimista kontua gustatzen zaidala. Baina, azken finean, abestiek nire momentua erretratzen dute. Pozik banago, tronpetak eta irribarrea. Ziklotimiaren beheko aldean banago, hitz lasaiak eta folk tristea.

Bada, Bilduren *Donostia sound* berriaren ikono izateko guztia duzula uste dut nik.

Ez dakit zergatik. Aztarna gehiago ematen baduzu, igual bai edo igual ez. Baina ez dut oso argi ikusten.

Arrazoi duzu, atez ateko hondakin bilketari himno bat konposatzea falta zaizu.

Igual kristoren ideia litzateke horrelako gai mamitsuak jorratzea. Eta koru-musika egitea ere ondo legoke. Baina ez dut nahi, ez dut zirrara ikusten. Ez dakit, nire proiektua librea da, eta zeri buruz idatzi ere nire esku dago. Pentsa hau hobya dela, eta horrela jarraitu nahi dudala.

Mikel Erentxun maisuaren eredia abandona-tuta?

Mila esker, komentario hori ohorea da. Are gehiago *Salvame*-n edo Klaudio Landaren programetan agertzeko ametsa duen kazetari batengandik badator!

Ez ahaztu La Oreja de Van Gogh-ek eta Giorgio Bassmattik pop donostiarra egiten duzuela.

Bai, eta Hitler eta Ezenarro politikariak direla (edo zirela). Kategorizazioak arriskutsuak dira. Gainera, zer da pop donostiarra? Egia esan, Donostian gehien entzuten den musika pintxo tabernetako diru-kutxena da. Atera kontuak. ■



Kartografia

Errealitatea deformatzeko artea

Gure planeta zatika nahiz osorik irudikatzeak desitxuratzea ekarri du beti berarekin. Hasieran, oztopo teknikoengatik, lurra biribila zela jakitean, esfera plano bihurtzeagatik, eta, batez ere, mapagintza agintarientzat alor estrategikoa izan delako eta mapak nahieran aldatu eta erabili dituztelako. Eta gurean, Euskal Herria oinarririk gabeko asmakizuna omen delako.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

ANTZINA, lurra ibai handi batez inguratutako disko laua zen (edo hori uste zuten lurtarrek). Dakigula, Miletoko Tales izan zen, K.a. VII. mendean Lurra esferikoa dela esan zuen lehena. Baina ez zuen arrakasta handirik izan, eta mundua marrazteko diskoa erabili zuten

hainbat mendez, Greziako filosofo handiek, eta nagusiki Aristotelesek, esferikotasuna gaitentzea lortu zuten arte.

Forma behin betiko ezarri ondoren, Lurrak neurria behar zuen, eta horretan jardun zuten zientzialariek. Haietako bat Ale-



HELENA FALABINO

Abraham Orteliusen 1570eko munduko mapa. Kontinente guztiak ezagunak izaki eta teknologia hobetuta, XVI. mendean mapak asko hobetu ziren, baina oraindik esfera plano bihurtzeko zailtasunek deformazio handiak eragiten zituzten.

Afrikako pastelaren banaketa

XIX. mendean, Europako potentziek Afrikako kontinentea esploratutako eremuen arabera banatu zuten. Baina Afrikan lurralde gehienak kolonizatu gabe zeuden oraindik. Hala, elementu geografiko ezezagunei eta bertako biztanleek mendeetan mugatutako lurraldeei jaramonik egin gabe eskuaira erabiliz marraztu zituzten mugak.

Ingelesek bloke bat egin nahi zuten Kairotik Lurmutur hiriraino; frantsek Senegaletik Sudaneraino; alemaniarrek beherago, egungo Tanzaniatik Kameruneraino; eta portugaldarrek Angola eta Mozambique batu nahi zituzten. 1884an Berlingen burututako biltzar batean mugako lerroak nola marraztu arautu zuten: kostaldean



bi puntu markatzen ziren eta leho- rrean sartzen ziren bi lerro marrazten zituzten laukizuzena itxi arte, laukizu- zenaren barruko lurralde guztiak koloni- zatzeko. Ederki ikusten a hori, esa- terako, Nigerren, Togon edo Boli Kostan.

AEBetako estatuen arteko muga gehienak eta AEB eta Kanada arteko muga ere lerro zuzenez eginak daude. Baina Afrikan ez bezala, han biztanle- ria autoktonoa suntsitu egin zuten, eta biztanle berriek ez zuten arazorik izan beraiek jarritako mugetan bizitze- ko. Afrikan, aldiz, mendetan etsai izandako herriak batu zituzten, eta batera bizitakoak banandu; eta kolonizazio errukigabea gatzaka iturri da oraindik kontinente beltzean.

xandriako liburuzaina izan zen, Eratostenes, K.a. III. mendean. Oztopo teknikoak oztopo eta akatsak akats, emaitza harrigarria lortu zuen: 39.500 kilometroko zirkunferentzia (benetakoa 40.000 ingurukoa da).

Baina mapak egiteko, kontuan izan behar zen gainazal lau batean marraztutakoak izatez biribila den errealtatea islatu nahi duela. Berriz ere, greziarrak izan ziren horretan aitzindari. K.a. II. mendean Hiparko astronomoak egin zituen lehen proiektzioak. Deformazioa saihestezina zen, baina lurra ahalik eta gutxien desitxuratzea zen proiektzio horien helburua. Alabaina, aurrerantzean askotariko interesak izango ziren nagusiki mapak desitxuratuko zituztenak, eta ez oztopo teknikoak.

Elizarekin topo

Erromatarrek eutsi egin zioten mapagintzari, baina greziarrek itsasoari begiratzen bazioten, haiek lehorrari. Erromatar kartografiak helburu praktikoa besterik ez zuen; ejertzito, zerga biltzaile eta abarrentzako tresna izatea, alegia.

Arabiarrek klasikoen jakintza gorde zuten, Indiako eta Ekialde Urruneko aurrerapenez aberastuta. Baina Europan erlijio hutsean oinarritutako munduaren irudiak ohiko bihurtu ziren Erdi Aroan. Adibidez, Lurra hiru zati sinbolikotan banatzen zutenak, orduan ezagunak ziren hiru kontinenteetako bakoitza adieraziz. Europa eta Afrika behealdean zeuden, ibai batek banatuta; Asia, berriz, goian (garai hartan paradisuaren bertan zegoela uste baitzuten).


Geografia eta teologia uztartzen zituzten irudi haiek ez zituzten marinelen beharrak asetzen. Horregatik, mapa erabilgarriagoak egiten hasi ziren, beren kabuz, XII. mendean Asiatik etorritako iparrorratza baliatuta. Praktikoak ziren, eta nahiko zehatzak, baina nabigazioa erraztea beste helbururik ez zuten. Munduaren ezagutzari dagokionez, Eliza katolikoaren "kartografia" nagusi zen. Europarrentzat, urruneko lurraldeak fantasiazko izakiz eta aurkitu gabeko aberastasunez josita zeuden.

Jakintza estrategikoa

XV. eta XVI. mendeetan, Europako itsas potentzien espansionismoak goitik behera

Jan Vermeer margolariaren *Geografoa*. Aro Modernoan itsas potentzien espansionismoak bultzada handia eman zion kartografiari eta Flandria (zehazki, Anberes) mapagintzaren gune nagusietakoa bilakatu zen.





WWW.MAP-CENTRE.AU



Goian, nahita deformatutako mapa. Gaikako mapa batzuk aldagaien arabera deformatzen dira informazioa bisualki adierazteko. Mapa horretan BPGren hazkundearen arabera puztu dira herrialdeak. Azpian Ozeano Barea erdigune duen munduko mapa. Mapa eurozentrikoetara ohituta gaude, eta ez gure kontinentea bazter batean desitxuratuta ikustera.

aldatu zuen kartografia. 50 urte eskasetan, munduaren ikuspegia guztiz zabaldu zen. Berpizkundean zientzia erlijioaren katetik askatu zen, eta mapagileak munduari gaur duen itxura ematen hasi ziren. Mercatorrek, 1569an argitaratutako atlasean, kartografia modernoaren ezaugarri gehienak bildu zituen, eta XVI. mendearen amaieran, artean lurralde ezezagunak zeuden arren, munduak gaur egungoaren antzeko irudia zeukan.

Baina kartografia funtsezko jakintza estrategiko bihurtu zen. Hala, zientziaren garapenak, neurtzeko tresna gero eta modernoagoek, Amerikako eta Ozeaniako lurraldeen aurkikuntzak... mapa fisiko geroz eta zehatzagoak ekarri zituzten, baina interes politikoek ezarritako mugek mapa politiko geroz eta deformatuagoak eragin zituzten. Esaterako, gerra napoleonikoen amaieran, 1815eko Vienako Kongresuaren xede nagusietakoa Europako mapa politikoa berriro marraztea izan zen. Eta Afrikako mapa politikoari erre-

paratu besterik ez dago kartografiaren desitxuratzeko politikoaz jabetzeko.

Gainera, mendetan zehar munduko atlas gehienek Europa erdigunetzat hartu izan dute. Eurozentrismoa mapagintzan ere nagusitu dela, alegia. Hala, planeta osoko mapetan gure kontinentea proportzio txukunetan ikusten ohitu gara, Ozeania, Groenlandia, Alaska edo Antartika erabat deformatuta agertzeari garrantzi handirik eman gabe. Historia garaileek idazten duten bezala, mapak garaileek marrazten dituzte.

Baina ez dago, ez denboran ez espazioan, urrun joan beharrik mapen deformazioaren lekuko izateko.

Euskal Herriko maparen zauri berriak

“Euskal Herriko historia Nafarroarekin batera kontaktzen duten eskolak jazarri eta zigortu behar ditugu”, esan zuen Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentek, 2003an. José María Aznar Espainiako presidente ohiak, aldiz, “Euskal Herria iruzur bat da” bota zuen 2008an. Urte berean, “Zapaterok bi hilabeteko epea eman du Euskal Herria terminoa euskal eskoletako Curriculumetik ezabatzeko”, irakurri genuen *El Correo* egunkariko artikulua batean. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak legez kanpokotzat jo zituen Euskal Herria hitza dakarten euskarazko testuliburu guztiak.

Ordurako, egun batetik bestera, eguraldiaren mapa aldatu egin zuten ETBn. Eta egun, Euskalmeten webgunean sartuz gero EAEko mapa ageri da lehenik, baina egun bat aukeratu klik eginez gero, Iparraldean eta Nafarroan ere zer eguraldi egingo duen jakin dezakegu (EAEko mugak nabarmenago markatu arren).

Logika gailendu artean, ikasleek Nafarroako Erresumarik gabeko euskal historia zentzugabea ikasiko dute

Eskizofrenia kartografiko moduko hori larriagoa da hezkuntzan. Euskarazko testuliburuetan Euskal Herria kontzeptua Euskadi bihurtzen ari da derrigorrez, eta EAEko mapak Euskal Herrikoak ordezkatzeko ari dira. Horrek esan nahi du, adibidez, iaz 12-13 urteko ikasle

batek Gizarte Zientzietako liburuan Euskal Herriko mapak zituela, eta datorren urtean EAEko Geografia eta Historia soilik ikasiko zituela. Kontu ideologikoak albo batera utzita ere, logika pedagogikoak dio gure lurraldeetako Antzinaroko edo Erdi Aroko historia EAera mugatzeak eta Nafarroa baztertzeko ez duela zentzurik. Eta, krisialdi betean, logika ekonomikoak dio euskarazko ikasleentzat hiru testuliburu bereizi (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) prestatzea ez dela bideragarria. Baina logika gailendu artean, ikasleek Nafa-

Euskal Herria aitortu du kartografiak

“Euskal Herria hitzarena edo lurraldeko maparena berria da, izugarria, gure izaera historikoaren muinaren aurkako eraso. Sekula inor ez da ausartu hainbeste egitera. Etorkizunean existitzeko aukera ukatzeaz gain, sekula existitu ez garela diote” dio Jose Mari Esparzak *Mapas para una nación* liburuan (Txalaparta, 2011).

Lan horretan, Esparzak XI. mendetik hasi eta gaur arteko ehundik gora mapa bildu ditu, gehienak atzerriko bidaiariak, gerra kronikagileak, hizkuntzalariak... eginak, eta gehienak Euskal Herriko zazpi lurraldeak (edo Hegoaldeko lauak) biltzen dituztenak. Mapei lotuta, historian zehar euskaldunon lurraldeari emandako izenak ere biltzen ditu. Beraz, “nazioartean” onartutako lurraldea eta kontzeptua lantzen

ditu liburuak, ez euskal herritarrek eman nahi izan dizkioten lurraldea eta kontzeptua. Frankismo garaian Espainian egindako mapa batzuek ere Euskal Herri osoa hartzen dutela ikus daiteke lan horretan, edo 1980ko hamarkadan Iruñeko Udalak argitaratutako liburu batek orain ukatzen den lurraldetasuna jasotzen duela.

Wasconia mapa batean lehenengoz irudikatu zutenetik mila urte igaro direnean, Euskal Herriko mapa (literalki) txikitzeke erasoak ugalduta dira; Esparzarentzat lurraldetasunaren aurkako “azken gudu modukoa” da. “Horregatik, horrelako liburuak beharrezkoak dira, sekula argitaratu behar ez liratekeen arren. Espero dezagun, egunen batean, guztiok begien bistakoa dena onartuko dugula”.



Saint Sever monasterioan XI. mendean eginiko mapan, Wasconia lehenengoz irudikatuta agertzen da.



Euskal Herriaren xehetasuna 1846an Alemanian egindako Eurasiako mapa batean (Heinrich Berghaus).



C.H.A. Jaillot Frantziako erregearen geografoak XVIII. mendean eginiko mapa.



Pamplona se dice Iruñea liburu didaktikoko mapa, 1987an Iruñeko Udalak argitaratua.



GOOGLE MAPS

Ezkerrean, Da Vinciren odometroa. Alexandriako Heronek asmatu zuen odometroa Antzinaroan, eta mapak egiteko oso baliagarria izan zen, distantziak modu fidagarrian neurtzeko tresna baitzen. Eskuinean, Google Mapsen bizikleta, Street View tresnarako argazkiak egiten dituena. Satellite bidezko zehaztasunaren ondoren, kartografia lurrera (eta gurpilera) itzuli da.

rroako Erresumarik gabeko euskal historia zentzugabea ikasiko dute, eta Nafarroan eta Iparraldean euskaraz ikasten dutenek EAEn bizi direla imajinatu beharko dute.

Kartografia sozialera bidean?

Euskal Herriko eguraldiaren mapagileek edo testuliburuetakoez oraindik badute lana mapak agintarien nahieran moldatzen. Baina, oro har, kartografia klasikoa hilzorian dago, teknologia berriek ekarritako kartografia automatikoaren mesedetan. Google Mapsen satellite bidezko irudiek Vermeerek margotutako kartografoen irudi erromantikoa ezabatu dute, autoetako gps nabigatzaileek paperezko errepide mapa tolesgarri tolestezinak ordezkatu dituzte...

Kartografo berriek, biziraun nahi badute, espezializaziora jo behar dutela uste dute batzuek. Esaterako, munduko erronka nagusietakoa uraren kudeaketa da, eta hala, kartografia hidrologikoak etorkizuna izan dezake.

Mapek ez dute soilik lurraldea irudikatzen, lurraldea sortu ere egiten dute. Eta kartografia sozialak lurralde bidezkoagoa sortzen lagundu beharko luke

Baina bada alternatiba zabalago bat: kartografia soziala. Vladimir Montoya antropologo kolonbiarraren hitzetan, “mapa ofizialak botere eta mendekotasuna harremanek baldintzatutako ezaguera tresnak dira. Pentsamendu kartografikoaren zentsurek zurruntasun geografikoa botereak eskatu bezala malgutzen dute, eta teknikak konpon ditza-

keen baina ordena politikoak inposatzen dituen hutsuneak, isiluneak sartzen dituzte”. Haren ustez, mapek ez dute soilik lurraldea irudikatzen, lurraldea sortu ere egiten dute. Eta kartografia sozialak lurralde bidezkoagoa sortzen lagundu behar luke. Kartografia tradizionala “kanpoko adituek”

egin dutela dio, eta kartografia soziala “barrutik” egin behar dela, mapak tokiko eragile sozial guztien ezagutzak aintzat hartuta egin behar direla.

Eta horrela, agian, lurraldea desitxuratzeke artea lurraldea itxuratzen hasiko da. ■



www.txalaparta.com

Koldo Martinez Urionabarrenetxea

«Medikuengan kezka ikusten nuen legalitatearen inguruan, baina ez etikaren inguruan»

Bioetikan aditua eta polietikaren defendatzailea.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Zergatik aukeratu zenuen medikuntza?

Batxilergoa bukatuta ez nekien oso ongi zer egin nahi nuen: politika, zinema, filosofia, zuzenbidea, medikuntza... Aitak esan zidan zinema ez egiteko eta amak politikan ez sartzeko. Horregatik, bi horiek baztertuta, medikuntza hautatu nuen, ez bokazioz, baizik eta lotzen dituelako beste alor asko: zientzia, filosofia, etika, politika eta zinema ere nolabait, pazientearekin solastatzen ari zarenean asmatu behar duzulako zer duen buruan eta zer nahi duen esan.

Ikastetxe erlijiosoetan ikasi duzu beti?

Txikitan Clérigos de San Viator ikastetxean, Arrasaten, hara joan baikinena bizitzera. Ondoren haiekin ere PREU egin nuen Gasteizen eta Iruñeko Opus Deiren Unibertsitatean medikuntza. Unibertsitatean hasi aurretik urtebetez Oregonen [AEB] izan nintzen ikasten eta bertako familia batekin bizitzen. Hara joateko eskaintza iritsi zitzaidanean amak esan zidan zalantzarik ez izateko eta Ameriketara joateko. 1970ean izan zen hori. Oso urte aberasgarria izan zen benetan. Handik itzuli eta Opuseko unibertsitatean sartu nintzen. Imajina ezazu zer nolako aldaketa! Lehenbiziko urtean ikasi besterik ez nuen egin, baina hurrengoan, apirilaren 30ean, Iruñekoak ziren baina Zaragozan bizi ziren bi anaiek pankarta subertsiboa jarri zuten eraikin zentralean: "Estudiantes obreros, unidos venceremos. Viva el primero de mayo". Atxiloturik eraman zituzten eta hurrengo egunean asanblada egin genuen esanaz ikasleok ez bage-

nuen politikan sartu behar, irakasleek ere ez. Eta hor hasi ziren nire arazoak unibertsitatean. Seigarren mailara arte 12 edo 13 espediente abisu jaso nituen baina ez ninduten bota eta urte batzuk geroago tesia ere hemen egin nuen.

Oñatin, Iruñeko Txantrea auzoan eta hainbat tokitan lanean aritu ondoren Zainketa Intentsiboen Unitatean sartu zinen. Zergatik?

Heriotzaren aurkako borrokan lehen lerroan egotea delako. 34 urte daramazkit intentsibotan eta askotan ikusi dut besteen heriotza. Biziazen parte da. Bizitza ematen dizutenean heriotza ere ematen dizute. Eta horrela da zorionez, heriotzarik ez balego gu ez ginatekeelako hemen egongo. Bizitzaren azken fasea dela eta haren ondotik ezer gehiago ez

Nortasun agiria

Koldo Martinez Urionabarrenetxea (Eskoriatza, 1953ko otsailaren 25a). Zainketa Intentsiboen Unitateko medikua da Nafarroako Ospitalegunean. Horrez gain Espainiako Funtsezko eta Kliniko Alorreko Bioetika Elkarteko presidentea da; politikagintzan, Geroa Bai koalizioan, Zabalzen independenteen taldeko burua; eta Euskara Kultur Elkargoko presidentea ere bada. Hiru aldiz presidentea, beraz. Abertzale eta kosmopolita, Oteizaren lagun eta bere pasioaren mireslea, etikaren banderaria.





Onespen informatua

“Etiketik guk esaten duguna da onespen informatua ez dela paper bat sinatzea, baizik eta pazientearekin hitz egitea, zer duen adieraztea, zer nahi duen galdetzea eta, ondoren, horri egokitzen zaion tratamendua ematen saiatzea”.



dagoela onartu behar da. Baina pertsona guztiok anibalentzia dugu heriotzaren aurrean. Batzuetan ikusten dugu bizialdi baten bukaera egoki bezala. Pastel bateko ginga bezala. Nolako bizitza halako heriotza. Bestetan, aldiz, askapen modukotzat hartzen dugu. Denok gure heriotzaren inguruan pentsatzen dugunean zalantza hori dugu: azken kondena edo askatzea izango ote den. Erljioek herio-

tza ate gisa aurkezten dute, beste bizitza batera pasatzeko modu gisa, baina nik uste dut heriotza horma bat dela.

Oinazeari denok diogu beldurra, heriotzari baino gehiago?

Ez dakit. Normalean biak elkarrekin joan dira, nahiz eta gaur egun moduak ditugun oinaze fisikoa kentzeko. Oso erraz ken daiteke. Arrazoi erlijiosoengatik eta beldur legalengatik oraindik ere hainbat eta hainbat jende oinazez eta minez hiltzen da. Hori ezin da onartu eta salatu behar da. Gainera bizi gara inolako oinazerik onartzen ez duen gizarte batean, baina oinazea eta bizitza bera, bat datoz. Badira sufrimendu eta min batzuk berehala kendu beharrekoak, baina badira beste batzuk jasan beharrekoak. Maitaleak uzten zaituenean, ama edo semea hiltzen zaituenean, etxea kentzen dizutenean edo lanetik botatzen zaituztenean... Halako oinazeak ezkutetzea gure aurka doa, beharrezkoa da oinaze hori bizitzea eta gainditzea, pertsona bezala hazteko eta garatzeko.

Eutanasiar zer iritzi duzu?

Estatu honetan bai eutanasia bai suizidio lagundua legez kanpo daude. Gaur egun sufrimendu fisiko gehiena ken dezakegu dauzkagun baliabideekin. Hala ere, batzuek nahiago dute beren bizitzari bukaera eman. Muga eta baldintza batzuk argi eta garbi ezartzen eta betetzen badira nik ez dut oztoporik ikusten bai eutanasia bai suizidio lagundua legezatzeko. Oregonen, adibidez, oso kontu interesgarria gertatu da: eutanasia despenalizatzearen aldekoek erreferendum guztietan galdu egiten zuten. Ondoren suizidio lagunduaren alde egin eta irabazi egin zuten. Orduan batzuek esaten zuten bere buruaz beste gehien egingo zutenak betikoak izango zirela: pobreak, emakumeak, heziketa maila apalena dutenak, eta abar. Eta hori ez da gertatu. Orain arte hau eskatu dutenak unibertsitete mailako ikasketak dituen pertsonak dira, nagusiki, aseguru medikuak dituztenak, gizon bezainbeste emakume... Legezatzearen aurka ematen diren arrazoi moralak oso eskasak dira.

Zein da eutanasia eta buru-hiltzearen arteko aldea medikuaren ikuspuntutik?

Eutanasian pazienteak eskatzen dio medikuari bere bizitza akaba dezan eta suizidio lagunduan medikuak egiten duena da errezeta bat eman gaixoak pilula batzuk eskura ditzan, baina gero gaixoaren esku gelditzen da hartzea edo ez. Bigarrena erosoagoa da sendagilearentzat.

Gai delikatua da medikuaren jarrera morala.

Pertsonen arteko errespetuak behartzen gaitu besteen arrazoi moralak moralizat hartzera, bestela ez dago errespeturik. Dena den, batzuetan medikuen jarrera moralaren inguruan egiazkoak ez diren gauzak esaten dira. Hemen Nafarroan, adibidez, abortua dela eta, esaten zuten ez zegoela abortuak egingo zituen ginekologorik eta argi dago baietz, badaudela baina baldintza batzuk exijitzen dituzte eta administrazioa ez da konprometitzen horiek ziurtatzera. Hori ikaragarriko manipulazio politikoa da.

Lehen mediku "espainiarra" zara Bioetika master europarra egin duena.

Bai, "espainiar" hori azpimarratzen zuten *Diario de Navarra*. Medikuntzan, beste edozein arlotan bezala, badira bi arau mota: legalak, eskubideez arduratzen direnak, eta etikak, betebeharez mintzo direnak. Nire lankideen artean oso kezka handia ikusten nuen legalitatearen inguruan, baina ez etikaren aginduen inguruan. Nik horretan sakondu nahi nuen. Jakin-min honi gehitu zitzaion ikusten hasi nintzela ezagutzen nituen zenbait pertsona eta aspaldiko lagun batzuk hiesak hartuta hiltzen. Oso garrantzitsua izan zen niretzat. Gaixotasun beldurgarri hori, oraindik izenik ez zuenean, 17 urterekin ezagutu nuen, Oregonen nintzenean. Hiesaren sorrera, nolabait, gertutik bizi izan nuen eta beti izan dut interes handia haren bilakaeraz. 1990ean urtebete eman nuen New Yorkeko erietxe batean hiesa eta nutrizioaren inguruko ikerlan bat egiten. Orduan izan nuen lehen notizia onespren informatuaren inguruan. Hemen hori zer zen ideiarik ere ez genuen eta hortik etorri zitzaidan bioetikari buruzko interesa. Bi urteko masterra egin nuen Madrilgo Complutensean eta hori bukatutakoan irakasleak deitu zidan master europar bat egiteko eskainiz. Baietz esan nion eta beste bi urtez egon nintzen ikasten Belgika,

"Euskaraz bizi nahi dut" kanpaina

"Nik nahiago dut 'Euskaraz ere bizi nahi dut'. Ere horrek badu berebiziko garrantzia. Nik hizkuntza desberdinetan bizi nahi dut oraingo pertsona naizelako eta mundu globalizatuan bizi garelako".

Holanda, Italia eta Madril mundu osoko jendearekin. Diego Gracia izan nuen irakasle, eta nire ustez, bera da gaur egun Europa osoan maila gorena duen irakaslea. Diego gizon jakintsua da, eminentzia bat. Behin hona etortzera gonbidatu nuen hitzaldi bat ematera eta haren aurkezpena egin nuen esanez hau dela nire bizitza aldatu zuen gizona. Erabat lotsagorritu zen eta jarraian erantsi nuen: amak esaten zuen bezala, "lastima ezagutu ez izana 18 urte zenituelarik". Bera eta Jorge Oteiza dira inoiz ezagutu ditudan pertsona interesgarri eta jakintsuenak. Bata arrazionaltasuna da eta bestea pasioa.

Eta zer ikasi duzu master hauetan?

Gauzak ez direla ez zuriak ez beltzak ere. Denok daukagu geure arrazoiak, inork ez du arrazoi edo egia osoa eta, aldiz, denok egiaren zatitxo bat dugu. Giza arrazoi oso ahula eta pobrea da. Tolerantziak asko ikasi nuen. Aris-toteles deskubritu eta lagun egin nuen.

Hemengo osasun sisteman nola gaude alde horretatik?

Etika komiteak ari gara sortzen, arlo profesional guztietako ordezkariekin. Oso poliki doan lana da, oso geldoa, eta batzuetan pentsatzen duzu ez zara aurrera egiten ari, baina gero ohartzen zarela klima morala aldatuz doala. Hobekuntza eman da eta ematen ari da. Maila goreneko mediku bat hurbiltzen zaizunean eta iritzia galdetzen dizunean paziente batekin duen harremanaren inguruan, adibidez. Hori duela hamar urte pentsaezina zen. Eta medikuaren eta pazientearen arteko harremana erabat aldatzen ari da. Lehen medikuak ez zion batere informaziorik ematen gaixoari. Baina horrek ere badu bere arrazoi historikoa: "Muta ars" (arte mutua) esaten zioten latinoek medikuntzari. Pazienteari ez zitzaion ezer esan behar. Medikuek bazekien zer zen ona berarentzat eta soilik esaten zion zer egin behar zuen eta zer

ez. Historian zehar hori horrela izan da duela 40 edo 30 urtera arte. Orain ere ez da inon ondo egiten, ez Euskal Herrian ez Estatuan ere. Paper bat ematen zaie gaixoei eta kito. Zerbait da baina askoz ere gehiago egin behar da. Dena den informazioa ematea ala ez ematea ez da soilik medikuen kontua. Senitarteko batzuek ere nahiago izaten dute batzuetan gaixoari egia osoa ez esatea. Eta hori ere landu behar da.

Kontzeptu horietako batzuk politikagintzara eraman nahi izan dituzu, ezta?

Politikan ere, denon txarrerako, gauzak txuri edo beltz bizi izan ditugu. UPNkoa izateagatik ez zaude beti oker edo Geroa Baikoa izateagatik ez duzu beti arrazoi osoa. Arrazoiak denon artean egiten dugu eta nire ustez elkarrenganako begirunea lantzen hasi behar dugu eta, horretan finkaturik, adostasunak bilatzeko bideak zabaldu.

Abertzale independentea zara?

Beti izan dut politikarako grina. Politika eta etika beti oso loturik ikusi ditut. Abertzalea edo antiabertzalea naiz, segun eta zertarako eta segun eta noekin. 18 urterekin HASen sartu nintzen, gero HASI bihurtu zen. Ondoren batzuk handik atera eta EKIA antolatua genuen. Hortik Euskadiko Ezkerrara pasa nintzen eta han urte mordoxka egin nituen, batzuetan ados eta bestetan ez. Uste dut nire independentziarako zaletasun hori betidanik datorrela. Euskadiko Ezkerra hautsi zenean batzuk Alderdi Sozialistara joan ziren, beste batzuk EAJra eta ni etxera joan nintzen. Momentu honetan politika ekonomiaren menpe dago erabat. Ekonomiak agintzen du munduan eta horregatik borroka politikoa egin behar da ekonomia gizartearen esku jartzeko. Batzuek desilusionatuta daudela diote, baina guztiok gara izaki politikoak, batzuk sartzen gara eta besteek besteen esku uztea nahiago dute. Hori ere politika egitea da.

Independentziaren aldekoa zara?

Horrek ez nau batere kezkatzen. Daukagun



AZKEN HITZA

Homosexualitatea

“Ez dut parte aktiborik hartu homosexualitatearen inguruko aldarrikapen mugimenduetan. Nire homosexualitatea modu naturalean bizi dut. Armairutik ateratzea batzuei asko kostatzen zaie eta lortzen dutenean konturatzen dira ingurukoentzat ez dela sorpresa bat. Egia da, bestalde, behin ateraz gero, zure bizitza osoan ibili behar duzula armairutik ateratzen”.

egoera ekonomikoarekin, desberdintasun sozialekin, independentziari buruzko kezka ez zait lehentasunezkoa iruditzen. Hori baino lehen beste mila gauza dago: nazio eraikuntza, adibidez. Nola egin Nafarroa bat nafar guztientzat, nola egin Euskal Herri bat euskal herritar guztientzat, nola Europa bat europar guztientzat. Beren burua abertzaleztat duten batzuek egundoko kaltea egin diote Euskal Herriari. Zer da ezkertiarra izatea? Alderdi Sozialista, adibidez, ezkertiarra da? Ezker Abertzalea ezkerra da? Duela gutxira arte indarkeriarekin bat zetorren eta hori ezkertiarra izatea al da? EAJ eskuindarra da? Ni katalogio horietatik aldentzen naiz. Katalogioak gu seguru sentitzeko ezarri ditugun mugak dira. Adibidez homosexual eta heterosexual. Zenbat heterosexual aurkitu ditut nik

nire ohean! Gizon eta emakumeen artean zein da aldea? Non dago? Muga guztiz artifizialak dira eta abertzaletasunarekin edo progresismoarekin gauza bera gertatzen da. Progresista da AHTren aurka edo alde egotea? UGTn edo ELAn egotea eskuindarrekin egotea da? Ekintzen azpian dauden arrazoiez hitz egitea gustatzen zait niri eta arrazoi horietan bat bagatoz, akordioa lortzen badugu, goazen aurrera.

Euskara Kultur Elkargokoak Campionen “euskaro” berriak zarete?


Elkartea sortu genuen pentsatzen genuelako beharrezkoa zela euskara eta euskal kultura bultzatzeko, Nafarroan sortua eta Nafarroari begira. Ikusi genuen nafar agintarien jarrera penagarria dela euskarari dioten gorrotoagatik, baina, bestalde, euskararen alde lanean ari direnen artean *feismoaren* kultura dago oso zabalduta. Zerbait desberdina egin nahi genuen eta, bitxia da, baina agintariengana gure aurkezpena egitera joan eta handik aste batera lehenbiziko auzia zabaldu genuen Iruñeko Udalaren aurka. Oraindik maximalismo gehiegi dago bai UPNren partetik, bai euskal munduaren partetik ere. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



Mizpira / Larrua

Gaztaina / Larrua

Mizpira / Alpaka

Mizpira / Zilarra

- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



• Tim Russo •

«Monopolio mediaticoari erresistentzia egiteko baliagarri dira irrati komunitarioak»

Baimen legalik gabeko ehunka irrati daude Hego eta Erdialdeko Amerikan. Irrati komunitarioak dira, “erresistentziaren ahotsak”. Maia, garifuna edo gaztelania hizkuntzetan, herrien nortasunen eta aldaketa sozialaren bozgorailu dira. Batzuek Comunicador@s Populares por la Autonomia (COMPPA) elkartearen lankidetzeta jasotzen dute. Elkarte horretako kide dugu Tim Russo.

HARTZEA LOPEZ ARANA

JATORRIZ AEBetako Coloradokoa izan arren, Russok hamar urte baino gehiago daramatza Mesoamerikan bizitzen, Mexikon eta Hondurasen. COMPPA taldearen sortzailea da eta irrati komunitarioak altxatzen dihardu, baita komunikazio herrikoi ikastaroak antolatzen ere. Xede zehatza du: ikasitakoa bertakoek epe luzean erabiltzea, kanpoko inoren laguntzarik gabe.

Noiz eta nola hasi zinen komunikazio alternatibo asmoetan?

Indymediarekin. AEBetako Seattle hirian gorpuztu zen proiektu hura, 1999ko abenduan Munduko Merkataritza Erakundearen gailurraren aurka egindako mobilizazio eta jardunaldietan. Globalizazio liberalaren kontrako dinamika altermundialistaren lehen pausoak izan ziren, eta munduko 160 elkarteren artean erabaki genuen Indymedia sarea sortzea. Informazio askea hedatzeko tresna berritzailea zen eta potentzial handia sumatzen genion, Internetekin sekulakoak egin zitezkeela uste baikenuen. Elkargune garrantzitsua da Indymedia, baina denborarekin mugak ere agertu ziren. Batetik, ez zuen benetan hurbileko hedabide gisa funtzionatzen eta soilik antolatuak ginen jendeak genuen erabiltzen. Bestetik, herri askotan oraindik ere etxean Internet konexioa ukaitea oparia da. Esate baterako, Mesoamerikan biztanleen %2ak baino ez dauka.

Horregatik sortu zen COMPPA, komunikazio arloan beste tresna batzuen jorratzeko?

2001ean, Chiapasen, Puebla Panama Planaren kontrako jardunaldiak iragan ziren. Azpiegitu-



“Setio informatiboa gainditzeko, bertako komunitateek euren hedabideak eraiki behar zituztela argi zegoen”.

ra proiektu handiei aurre egiteko eta setio informatiboa gainditzeko, bertako komunitateek euren hedabideak eraiki behar zituztela argi zegoen. Egitura batzuk ezarri ziren orduan martxan, hala nola COMPPA. Bi arlotan lan egiten dugu geroztik, beharren araberrako tresna komunikatiboen muntatzen eta trebatze tekniko eta logistiko eskolak antolatzen, hezkuntza herrikoiaren printzipioei jarraiki. Irratigintza da gure zeregin nagusia, nahiz eta bideogintza, aldizkariak, Internet eta afixak ere lantzen ditugun. Ez gara gobernuz kanpoko erakunde klasikoan moldetan ari, gure taldea lekuko iniziatiben jalgitzearekin desagertzen da. Azken urte hauetan, goitik beherako egitasmo ugari ari dira gauzatzen Mesoamerikan, finantzaketak direla medio. *Taileritis* antzeko eritasuna garatu dute: urte bukaeran diru xahutzea orekatzeko, komunitateetara doaz edozer ikastaro egitera, denak epe laburrekoak, bertakoen beharretan oinarritu gabe eta elkarlanari leku gutxi emanez.

Zuek altxatutako irratiek zer ekarri diete komunitateei?

Mexikon, Guatemalan eta Hondurasen, monopolio mediatikoak kargudun politiko, enpresaburu eta lurjabe handien esku daude, etengabe ari dira erresistentzia mugimenduak kriminalizatzen. Egoera horri erantzuteko, irratikomunitarioak oso baliagarri ari dira suertatzen. Jende asko informazioaren aktore eta ekoizle bilakatu da haiei esker. Edateko on den urarekin pareka daiteke: urteetan informazio kutsatua edan ondoren, beste dutxulua ireki eta berehala nabaritzen da bizi-baldintzen hobekuntza. Ez dira soilik azpiegitura edo politika jakin batzuen kontrako informazioaren transmisioa, kulturak eta hizkuntzak indartzen dituzte, elkarrizketa guneak irekitzen, emazteei lekua ematen,

“Ez da soilik azpiegitura edo politika jakin batzuen kontrako informazioaren transmisioa; kulturak eta hizkuntzak indartzen dituzte, elkarrizketa guneak irekitzen, emazteei lekua ematen, diasporan daudenei ahotsa lagatzen”

diasporan daudenei ahotsa lagatzen. Toki frankotara heltzen dira eta haiek erabiltzeko ez da irakurtzen eta idazten jakin behar. Ahozko ondarearen segida dira. Irrati gehienak elkar-konektaturik daude eta informazio trukaketa burutzen dute.

Nola iragaten da, zehazkiago, irratikomunitateei?

Komunikazio herrikoi eskolak egon ohi dira lehenbizi. Informazio eskubidea, generoa eta informazioa edo herrien eskubideak lantzen ditugu alde teknikoak begiratu aitzin. Gero, eraikina komunitateak eraikitzen du eta eskola bukatzearekin estreinatzen da irratia. Antenen diagnostikoa, Internet bidez emankizun-

nen aberastea, irratikabinen muntaketa komunitateek berek dituzte gobernatzeko. Arazoak daudelarik, erregulariki biltzen gara haiekin diagnostikoak eta konponketak egiteko. Antenak, kabinak eta material elektrikoak AEBetatik heldu dira gehienetan. Irratiekin batera, babes handiagoa ukaiteko, nazioarteko ikuskarientzat jende eskubideen behatokiak altxatzen dira eraikinen ondoan, militarrek

eta sikarioek batzuetan irratiak erasotzen dituztelako. Gaur egun, mota horretako hamar irratikomunitate daude Hondurasen, eta Guatemalan bost. Zapatisten ereduari jarraitzen diote (halako hamabi irratikomunitate daude Chiapasen): trebatzaileek jaso duten prestakuntza ikasle berriei irakasten diete, irratikomunitate osoki autonomoak izan eta epe luzean aritu daitezeko.


Sarri ibiltzen zara Mesoamerikan gandi. Obamaren lehendakaritzak herri horien egoera aldatu duela uste duzu?

AEBen kanpo-politika definitzeko inperialismo hitza erabiltzen zen lehen. Dena den, maila horretan, gauzak ez dira asko aldatu.

IBERNALO
landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...

01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.iberنالorural.com



Fidel Castro, Daniel Ortega edo Manuel Zelaia aurre egiteko burutu operazioak AEBetako eskuin-muturrak ditu oraindik ere pentsatzen eta zuzentzen, Alderdi Demokrata erabaki horietatik kanpo dago beti, Gobernuan egon edo ez. Herri *lagunetan*, bortizkeria eta segurtasun eza dira orain arazo nagusiak. AEBek aholkularitza militarra eramaten dute Mexikora eta Hondurasera, narkotrafikoaren kontrako gudaren izenean. Armada kalera atera da baina biolentzia ez da baretu, egia erran emendatu egin da. Droga erosi eta armak saldu, betiko tratuan dabilta. Mexikon Calderón lehendakariak ozenki dio ez dela AEBen morroia baina inork ez du sinesten, Ipar Ameriketako transnazionalak dira lurren jabe. Eta Guatemalan, militar ohi batek ditu hauteskundeak irabazi, egitarau guztia delinkuentziaren kontrako esku gogorrean oinarrituz. Mugimendu sozialek adierazpide politikoan indarrak ez dutela erakusten du horrek, eztabaida handia dago hautesbideen inguruan, erabili behar diren ala ez jakiteko. Hondurasen bi korrante nabarmendu daitezke erresistentziaren baitan, hauteskunde bidez berriz ere boterea eskuratu nahi duena eta arlo horretatik kanpo lan egin nahi duten mugimenduak.

Irrati komunitarioa martxan jartzeko, lehenengo komunikazio eskolak eskaintzen zaizkie bertakoei: informazio eskubidea, generoa, herrien eskubideak... lantzen dituzte. Komunitateak berak eraikitzen du ondoren egoitza.

Oro har, estatistikei erreparatzen badiegu, egia da Mesoamerika munduko lurralde arriskutsuena bilakatu dela, Irak eta Afganistanen aurretik. Zigorgabetasuna, ustelkeria, aberastasunen partekatze eza dira, dudarik gabe, egoera honen arrazoi nagusiak.

Bukatzeo, AEBetan piztu protestek, Occupy Wall Street modukoak, zer iradokitzen dizute?

Ezinbesteko adierazmoldeak dira. Jendea apatiatik eta zinismotik jalgitzen hasia da, analisi eta kritika propioak egiten, kapitalismoak gidatu norabidea zalantzan ezartzeko. Munduaren zati handia hondamendira eramaten ari den lurraldean, halako protesten iragaitea beharrezkoa da. Estatuak biztanleak lagundu behar dituena aldarrikatzen dute, enpresa eta bankuen orde. Analistek, politikariek eta prentsa komertzialak espero zuten mugimendua itzali egingo zela, baina ez da halakorik gertatu. AEBetako beste leku askotara hedatu da Occupy dinamika, Grezian, Egipton, Txilen edo Espainian iragan mugimenduetan inspiratuz. Biztanleen %1ak irabaziak ukaiteko %99ak sufritzea aski dela erraten dute, sinpleki, demokrazia galdeginez. ■



EUREKAko Simulagailuetan dibertsioa ziurtatuta duzu!

- I FORMULAekin.
- MAX FLIGHT. Hegazkin simulagailuarekin.
- ORION izarretako ontzi interaktiboarekin.
- Eta gure MR1 eta MR2 errusiar mendiko simulagailuetan.

Leku kopuru mugatua.


eureka!
zientzia
museoa

gizarte
kutxa

DONOSTIA / ☎ 943 012 478 / Informazio gehiago: www.eurekamuseoa.es



EUSKAL MUSEOA BAIONAN



Bea Sallaberri

EUSKARA IRAKASLEA

Ama eta emaztea

Azken denboretan, Euskal Herrian amatasunaz idazten da, inpresio hori dut. Bizkitartean mende erdiz iraultzak iragan badira, feministak barne, ikuspegi partziala agertzen dela iduritzen zait: amatasun idealizatu batean gauzatzen den emaztetasuna, aipamenak zenbait alde edo garairenak direlarik, kristalizatuak, amatasunaren bidez emaztetasunaren betetze eta gailentze alegorikoak, azken finean gizarte tradizional eta patriarkalaren horiek berak?

Haurdunaldia, emaztearen irudi perfektu borobila, haur behar gorriko sufrikarioa, erditzea eta lehen asteetako arten aipamena: egiak badira ere, nekez imajina daiteke urrunago deus gutxi dela kontatzeko. Horien aldean, amatasuna emaztetasunaren parte bada ere, non aipatzen dira beste alde guziak?

Hasteko, amatasunaren alde idiliko horren bestaldea ez genuke isildu behar, egoera zaila ere bada, fisikoki eta ibilbide psikologikoan, epe luzean gainera, nolabait ongizatearen gizarte tiraniko honek ukatzen duena: nekea, itolarri sentazioa, denentzako arrangura eta goizetarik arrats, egunero, zernahi gertaturik ere maitatzea, barkatzea, ahanzte, bere burua beste guzien ondotik pasaratzea.



GAIZKA IROZ



Haurdunaldia, emaztearen irudi
perfektu borobila, haur behar
gorriko sufrikarioa, erditzea eta
lehen asteetako arten aipamena:
egiak badira ere, nekez imajina
daiteke urrunago deus
gutxi dela kontatzeko



Bestalde, amatasuna zerbait anitzez luzeagoa da, haur desiotik hasi eta sortu ondoan bizi osoan gogo gorputzetan iltzaturik eramanki dena. Zer genuke aipatzeko gure herrian, preseski, haur desio-ezaz edo arrazoi bat edo besterengatik haurrik ezin ukanaz, agian ere paraitzen duten presio sozialaz?

Molde zabalagoan eta oroz gainetik, amatasuna emaztetasunaren parte bat baizik ez denez, eta Euskal Herrian hainbeste gauza aldatu ondoan, ez dut sinesten emazteek ez dutela arrangurarik beren egoeraz, beren haurrez, emazte kondizioaz, norberak gizarte honetan duen rolaz, gizartearen alde tiraniko guzietan eta sustut, sustut, garapenaz ama gisa, bistan dena, baita ere pertsona, langile, militante, eragile gisa, nik dakita. Eta horretaz gauza gutxi entzuten dut. Azken finean, gure garaioek ditugun buruhaustek.

Baliteke okertzea baina, niganaino bederen ez da oraino heldu herri honetan emazte eta ama izatearen konplexutasun horren berri eta, egia dela ala

ez dela, ikusi nahi nuke jorratua; hots, bazterren inarrosteko, bada hemen problematika horien alde guziak irudikatzen margoak har litzaketen Élisabeth Badinter batzuen beharra. ■



TXANDAN

Edu Zelajeta



Ni ez naiz heteroa; edo ez beti, behintzat. Ez dut, bistan denez, ezaugarri hori ezkutatzen arazorik. Ez ekainaren 28an, ez eta uztailearen 3an ere. Ondo pentsatuta, heteroa izatea gauza erraza da gure jendartean; inertziatzeko joera, kasik. Alabaina, aukeran, jokamolde pobrea iruditzen zait, gehiengoaren araua izanagatik ere.

Gehiengo-gutxiengo kontuokin gertatu ohi den bezala, "gutxiago" denak (dagokion) duintasuna aldarririk beharra izaten du. Beraz, afera honetara etorrita, nekez adituko diozu hetero bati arau nagu-

Heteroa

siz kanpoko hitzik; non eta delako hetero hori oso perspektiba zabalekoa —progreá— ez den.

Nekatua nago gehiengoaren heteroa izate kroniko eta endemikoarekin. Zinez. Berdin da giroa edota maila sozioekonomikoa, heteroen kultura beti da nagusi, errukirik gabe. Horregatik, niri interesgarria iruditzen zaidana heteroa ez izatea da: gero eta estimu handiagoa diet publikoki autokritika egiteko gauza diren pertsonen. Izan ere, batzuetan inpresioa dut heterokritika jendeak praktikatzen duen bakanal lizuna dela. Orgia demasekoa. ■



Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Goresmenak Aitor!

Versailleseko Akademiak 1961etik lehiaketa berezi bat antolatzen du erresistentziaz eta deportazioaz memoria zaintzeko, gazteei gertakari latz horien transmisioa bultzatzeko. Aurten lehiaketa honen gaia “nazien eremuetan ihardukitzea” izan da. Lehiaketa hau presoei irekia zen. Lehiaketa horren antolatzaileak asko dira, denak deportazioaz, memoriaz eta erresistentziaz arduratzen diren frantses fundazioak, gehi Hezkunde Nazionala eta Defentsa Ministerioa. Instituzio nagusiei lotutako literatur lehiaketa honetako epai mahaian historia irakasleen elkar-
teak parte hartzen du. Lehiaketa oso ofiziala da, frantsesez idatzi behar dena.

Aitor Lorente bizkaitarra da. Ia-ia bost urte darama frantses presondegiatan preso. Duela gutxi itzuli bat eginarazi diote Madrildik, beste auzi batengatik, bake prozesu honetan estatuek ez baitute aterik irekitzen, baina bai epaiak bururaino eramaten zigor bat beste baten ondotik erabakiz. Aitorrek, aurten frantses egitura guzti horiek antolatzen duten lehiaketa horretan parte hartu du, faxismoaren aurka aritzeko lehiaketa horiek saiatze tresnak baitira beharbada. Frantsesez. Lehiaketako irabazle aterata da, epai mahaiko goresmenak eskuratuz. Lehiaketaren emaitzen berri ematera etorri zaizkio, presondegiko zuzendaria, Hezkunde



GAIZKA IROZ

Nazionalako ordezkaria, deportazio eremuan egondako anderea bat, besoan zenbakia zuena. Denak goresmenak, goraipatzeak. Hezkunde Nazionalako ordezkariak Aitorri lana lizeoetan banatzeko baimena eskatu dio. Kontzentrazio esparruan egondako anderea hurbildu zaio Aitorri, gaia nola landu zuen jakiteko, bere esperientzia kontatzeko eta dudarik gabe, nazien kontzentrazio eremuetan ihardukitzeaz hain ederki idazten duen hori, zer-nolako pertsona den jakiteko kuriositatez. Erantzun ondoren Aitorrek kontzentrazio esparruan egondako Martzelo Bilbaoren historia kontatu dio, nola Martxelok hiruki urdina zeraman paparoan, apatrida baitzen, euskalduna. Esplikatu dio nola hil arte egurtu zuten espainola zela erranarazi nahi ziotelako eta Martxelok ezetz. Han hil zen, euskalduna zelako, Euskal Herrikoa, ez espainola. Esplikatu dio nola egoerak horretan jarraitzen duen, euskaldunek ez dutela estaturik, ezagutzarik. Oldartzen direnak, garaian bezala preso gordetzen ditu hain ozenki faxismoa salatu nahi lukeen frantses estatuak. Aitor horren lekukoa delarik.

Frantses ikasleek euskal preso batek faxismoaz idazten duena ezagutzeko aukera izanen dute, memoria euskal preso baten eskutik. Paradoxa! ■



Aitor Lorente bizkaitarra da.

Ia-ia bost urte darama frantses

presondegiatan preso (...).

Lehiaketako irabazle aterata da.

Epaimahaiko goresmenak

eskuratuz



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com



ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Zilarrezko zela

Luma koloretsuen ordeztan, txoriek larru zurbila zuten garaian, bazen herri bat, Euskalerrria deitua izan gura zuena. Haren sartalde urrun eta ezinago ilunean –talka sozio-linguistikoko nabarmen baten erdian–, bizi zen, bizi –Gasteiz deituriko hiri ederrean–, ministro erraldoi eta guztiahaldun bat, hur-biletik ezagutzen zutenek deitzen ziotena *Zela*.



INIGO AZKONA

bat kudeatzen zuen eskoletan, koloretan berezituriko liburuei esker.

Horraino, tira; baina –ipuunik eta klasiko- enetan gertatu ohi denez–, inork ez dakiela zer dela eta, gauzak okertu egin ziren, denak eta bat-batean: hipodromoan, herrenka hasi zen zaldi pintoa; eta, azterketetan, kolore beltzeko liburuekin ikasten zuten ikasleek emaitza hobetoak izaten zituzten besteek baino.

Baratzeko pipertxo, alderdiko poztasun, Legebiltzarreko urre-distira, Jaurlaritzako gatz-kresala... eta halakoak deitzen zizkio- ten baita ere. Baina, batez ere, *Zela* esaten zioten hari: atsegina baitzuen ministro hark zaldi gainean ibiltzea, zela ondo dotore batean eserita.

Basoetan zeharreko paseotik bueltan, distira ateratzen zion ministroak zilarrezko errematxeak zeuzkan zela garestiari. Eta, inoiz –horretan ziharduela–, barreari ematen zion, larruzko eserleku hartan idatzita zeukan leloaren bukaera irakurrita: “...eman bekio arbalda”.

KOLORE BI. Hezkuntzaren ardura zeukan ministroak. Eskolaren ardura... institutuena, lanbide-ikaste- txeeena, unibertsitatearena. Bibliotekena... ikasteko liburuen. Diplomena...

Lantegi asko eta eserleku franko- ren artean mugitzen zen ministroa, buru-belarri. Gaur hemen, bihar han. Lantegi beste eserleku... Hale- re, zela: bakarra, zaldi zuri-beltz gurutzatu baten bizkarrera ongi lotzen zuena.

Bere ardura ziren eskoletan, zaldi pintoaren kolore-bitasuna- ren moduko bat bizi zuen minis- troak. Kolore biko liburuak agin- du zituen: hizkuntza batean batzuk –kolore beltzean horiek–, eta beste hiz- kuntza batean besteak –horiek ere beren kolorean, zurian–.

Hartara, bada, zaldi zuri-beltza zamalka- tzen zuen ministro hark *elebiko* hezkuntza

HIRU MARGO. Gaizki zihoazen gauzak. Segituan etorri zen porrota, eskolara bezala gizartera ere bai: hutsunez bete geratu zen elkarbizitza linguistikoa. Zer egin?

Ministroaren Gorte hartan, katastrofe soziolinguistikoa gaintzeko, *elebiko* politi- karen porrotaren zergatiak ikertu ordeztan, esperimendu berri bat jarri zuten abian: “Sar dezagun eskoletan hirugarren hizkuntza –orpo berri bat– bi ardatz zaharrak olio- tatzeko, gainera, modernoago izango gara horrela”. Bada, hirugarren hizkuntza sartu zuten eskoletan, eta, testuak idazteko, hiru- garren margoa: gaztaintara.

Koloreen hirutasunarekin itsutu zen ministroa. Hipodromoko kortan, hiru mar- godun zamaria hasi zen eskatzen. Hasi zen, hasi, bere zaldi eder eta dotore baina herre- na besteren behor batzuekin guru- tzatzen. Larru polit askoak lortu zituen ministroak, baina *hiru larrukoa* etortzen ez.

Eskoletan ere berdin antzera ibili zen: hizkuntza birekin ongi ez denak, eta hirugarrena sartu... Horiek buruhaustea. Horiek hautsaren minak. Horiek, nahiak eta ezinak.

Halako batean, ukuilura joan, eta han aurkitu zuen ministroak moxal jaio berria, ezusteko galan- ta: hiru margokoa barik, kedarra baino ilunago, beltza baino beltza- goa zen txikoa! Zilarrez- ko zelak berak egin zion orduan barre ministroari: “Zelarik nahi ez duenari eman bekio arbalda”. ■



irudia:
Antton Olariaga



BERTSO BERRIAK

Jesux Mari Irazu

Erreskateari jarriak



XDZ

I

Espainiak berezko
ohi du Handigintza
Felipe bigarrena
halaxe zen mintza
Lehen inperioan
beti argi printza
eguzkirik sartzen ez
zeneko oroitza
orain ateratzeko
lotsetan dabilta.

II

Ehun mila milioi euro...
beste hainbeste bela
Zazpitik lau probintzi
bustiz mela-mela
Erreskate, mailegu,
edo dena dela
Nik uste ia-ia
esan litekeela
jada, Espainia ez
Europa gara.

III

Paradisu fiskalak
palmondo, kokoak
ta kokotza tapaki
gehienek kolkoak
Salbatu bankuak ta
gero gerokoak
Noeren txalupara
poltsa berokoak
bizitza bera baino
lehenagokoak...

IV

Sufragioa ere
omen mailegu gai
boto erreskatea
hauteskunderen zai
Lehen berrehun mila pasa
mapatik kendu ai
orain hirurehun mila
zorretan hartu nahi
Geltoki intermodala
beharko dugu bai.

V

Antonio hizketan
gizon kaskailua
pozik, aurkitu baitu
bere jostailua
Nahiz alde izan lege,
toga ta mailua
Hemen denok daukagu
geure gordailua
memori pixka bat ta
kalkulagailua.

VI

Azken ale bat bada
utzi nahi dudana
eskola txikitako
bizitza emana.
Mende laurden luzean
su bajuko lana
emaitza, benetako
erreskate plana
eginaren aitortza
zorretan daukana.

DOINUA: Agur sagar belatzaran.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Herbert von Karajan

Nazismoak haizatutako orkestra zuzendaria

XIX. mendearen bigarren erdialdean ugaldtu ziren kontserbatorioak, baita orkestra sinfonikoak eta kontzertu herrikoiak ere. Europako musika mundura zabaldu zen lehenengo edizio globalizatuan: partiturek ez zuten itzulpenik behar. Halere, garaiko gertakizun historiko originalena *divismo* mota berri baten sortzea izan zen: orkestra zuzendariarena. Zer harreman izan zuen nazismoak XX. mendeko zuzendari ezagunenetarikoarekin?


HEDO I ETXARTE

BOTERERA HELDU AURRETIK hasi ziren naziak haien estetika musikala eratzten. 1929an sortu zuten Alemaniako Kulturaren Aldeko Borroka Taldea. Alemaniako kultura «pornografiatik, boltxebismotik, nazioarteko juduengandik, Bauhaus artetik, ezkerreko kritikariengandik eta musika modernista edo atonaletik» salbatzea zen haren helburua. Naziak gobernura heltzean, ordea, Goebbelsen menpeko Erreinuaren Musika Ganberak zuzendu zuen bereziki kultura politika. Nahiz eta Hitlerrek eta Goeringek ere haien estetika gailen zedin nahi izan, hirurek talka egiten zuten sarri. Haien txotxongiloak izaten ziren zuzendariak.

Hitlerrek, argiki, nahiago zituen Mahler judu-bohemiar-wagnerzalearen estilokoak, Furtwängler erromantikoa kasu; barkatzen zizkion akats ideologikoak. Haren emazte Eva Braun Knappertsbuschen “itxura maskulino miragarriak” txunditzen zuen, baina senararentzat banda militarreko zuzendaria besterik ez zen, nahiz eta nazionalsozialista porrokatua izan. Goeringek Krauss kosmopolita eta *l'art pour l'art* zalea zuen gogoko. XX. mendeko orkestra zuzendari entzutetsu asko III. Reicheko afixa-buru izan ziren. Disko industriari esker eta 60ko hamarkadatik hona, Karajan da gogoleko maisua.

Zuzendu ezin zen zuzendariaren artea

1946ko urtarrilean ingeles handi bat Viena mendebaldeko tren estazioan jaitsi zen. Zurichen estatubatuar dokumentu faltsuak



KUROBO

Herbert von Karajan orkestra zuzendaria, 2003ko apirilaren 23an.

eskuratu zituen eta azenturik gabeko alemanez mintzatzen zen. Walter Legge zuen izena eta ez zen espioia ezta hiltzailea ere, suitzar negozio gizona zela zioen; britainiar disko ekoizlea zen, ordea. Musika paradisu batean zegoen. Naziak errenditu eta hiru astera sobietar Komandanteak *Figaroren ezteiak* joarazi zituen maiatzaren lehena ospatzeko.

ekoizleak, berez, Furtwängler nahi zuen eta lan kontratuei buruzko hitzorduetan larderiatu zuen. Baina Furtwängler, gerra osteko urteak eta gero, Berlingo Filarmonikoa berriz zuzentzeko irrikatan zegoen eta Leggek gazteago bat bilatu zuen. Vienako Filarmonikoaren proba batean aurkitu zuen: Herbert von Karajan. Haren bizitasun eta energia izugarriak ilea lastu zion ekoizleari.

Traba bakarra zuen, Karajanek ezin zituela kontzertuak zuzendu Austrian eta Alemanian liberazioaren ostean. Leggek zortzigarren pisu batean topatu zuen zuzendaria; beste zortzi lagunekin partekatzen zuen pisua. Karajan inorekin hitz egin gabea zen aspaldian. Baina agenteari bost axola zitzaion batuta bat zeramanaren iragana. Gainera Karajanek eta berak musikaren kontzeptu bera zuten. Handik hilabete batzuetara, Leggek –AEBei eta Frantziako militarrei desafio eginez– Britania

Fürher-a
Berlinen,
hango Orkestra
Filarmonikoaren
kontzertuan.
Wilhelm
Furtwängler
da zuzendaria.



Handiko Komandante gorenaren konbentzitu zuen: Karajanen gaineko debekua jendaurreko zuzenekoetara zegoen mugatua, beraz, ez zioten grabatzea galarazi. Hala, kontzertuak emateko baimena eman ziotenerako munduan ezagunak ziren Karajanen grabaketak.

Agenteak Britainiako kultura buruei galdetu zien Karajanen grabaketak banatzeko zailtasunik izango ote zuen. “Ez gara Erresuma Batua desnazitzen ari” esan zioten, “halere Alemania Mendebaldeko britainiar sektorean ezingo duzu”. Agenteak zuzendaria Londresera eramanean zuen, eta hamarkada batean 150 grabazio zituen argitaratuak: Beethovenen eta Brahmsen zikloak, Schubert, Mozart, Bartok edo Bruckner. Filarmoniak, EMiren orkestra gorenak, Abbey Roadeko estudioetara egin zuen jauzi. Soinu estereofonikoarekin zuzenekoak garaitzea zuten helburu. Masentzako balibide bat jaito berria zen eta Karajan zen giltzarria.

Urte batzuk beranduago, Karajanek esan

zuen Filarmonia gazte orkestra baten mailakoa besterik ez zela. Bere salbatzaile Leggek arazo larriak izan zituen EMirekin 1963an, baina Karajanek ez zuen keinu inimoena ere egin hari laguntzeko.

Birritan nazia eta ez hori soilik

Liberazioaren aurretik, Hirugarren Reichen lan egin arren, NSDAP alderdi naziaren karneta egin zuen 1933ko apirilean. Egun hartan jaso zuten Alemaniako juduek lanpostu publikoa uzteko jakinarazpena; udal orkestretakoak ere kanpora. Karajan eta bestelako ario gazteek bazkiten lan etorkizuna loratuko zela mugaz bestaldera. Halere, Austriako NSDAP ez zen legala Dollfuss-en erregimenean eta hiru aste beranduago Alemaniako Ulm herrian berriz ere atera zuen karneta zuzendariak. Ulmen aurkari garrantzitsua zuen Otto Schulmann lankide judua zegoen. Laster Amerikara alde egingo zuen. Bi susmo nagusik azaltzen dute ihesa: autoritate politikoek joatera behartu zuten edo Karajanek diruz hornitu zuen ospa egin zezan.

Oso ekintzailea zen Karajan, eta ez soilik karnetgintzan. Enpresa gizona izan zen eta eskiatzailea, hegazkin pilotua, lasterketa kotxeen gidaria eta sexu istorioetan aberatsa. Nazi idealaren irudia zuen: deabruzkoa eta bitalista. 27 urterekin Reicheko Orkestra Zuzendari Nagusi gazteena izan zen. Hitlerren urtebetetzean jo zuen, *Fidelio* zuzendu zuen Austriaren anxioa ospatzeko, besteak beste, Richard Trunk-en *Fronte berriaren ospakizuna* propaganda lana interpretatu zuen –zati koralaran amaieran “borborka aterako da juduen odola geure labanetatik” abesten–. Herrialde faxista baterako enbaxadore perfektua, La Scala eta Erromara bidali zuten. NSDAPren ereserkia zuzendu zuen Paris okupatuan.

Lilura teknologikoa eta komertziala

Iritzi ezberdinak daude Karajanek berez ekoiztu zuenaren inguruan. Harvey Sachs kritikariak aurrefabrikatutzat zuen, kalitate artifiziala zuela, Toscanini edo Furtwänglerenak ez bezala. Grabaketak oso leunduta daude eta Leni Riefenstahlen argazki eta filmeen homologotzat jo ei daitezke.

Ekoizpen garestiak egin zituen. Diskoen salmentan ehuneko hamar baino gutxiago poltsikoratzen zuen. Bere grabaketa proiektu asko hanka-sartze garestiak izan ziren. Hil zenean milioi bat libera zor zizkion EMiri. 1960ko hamarkadan Akio Moritarekin hasi zen tratuan, Sonyren fundatzailearekin. Japoniarrak nahiago izaten zuen merkatu bat galdu bere gailentasun teknikoan huts egin



baino. Klasikoaren fanatikoa zen Morita. Bere ingeniariari eskatu zien musika entzungailu bat egin zezatela, NASAk espaziorako misioetarako egin zuena bezalako, eta Walkmana sortu zuen eta 100 milioi ale saldu. Berak eta Karajanek teknologiarekiko lilura partekatzen zuten. 1970eko hamarkadan, petrolio krisiarekin bat, LParen leherketa hasi zen, eta tandemak Beethovenen *Bosgarrena* munduan barreiatu zuten.

Sonyk disko faktoria berria eraiki zuen, diruaren ehuneko hogeita Karajanek jarri zuen, Austriako gobernuak lagunduta. Japoniaren Austriako enbaxadore Atsuhiko Yatabek esan zuen: “Karajan profesorea da gure enbaxadako ekonomia eta kultura atxikia”. Moritak CBS Records eta Columbia Pictures kontrolatzen zituen. Eta CDarekin izan zuten arrakasta bideora esportatu zuten.

1980ko hamarkadan bere konpainia sortu eta bideo emanaldiak grabatzeari ekin zion Karajanek. Irudi ezberdina bilatu nahian 20 milioi dolar gastatu zituen. Hamabost kamerek grabatzen zituzten Berlin eta Vienako Filarmonikoekin egiten zituen saioak. Disko grabazioekin bezala, bere helburua perfekzioa erdietsi eta benetan kontzentratu nahi dutenek kontzertuak etxean ikustea zen.

Musikaria ez ezik, enpresa gizona ere izan zen; eta eskiatzailea, hegazkin pilotua, auto lasterren gidaria.

Goebbelsen babespeko

Outsiderra zen, Hitler bezala, probintziako austriarra Alemania kosmopolitan. Greziar-mazedoniarra zuen aita, berezko abizena Karajannis zuen, ama eslovakiarra. Haur miraria pianoan, zuzendaritza ikasi zuen. Langile ospea zuen, 1929an 125 opera ekoizpen taularatu zituen.

Tristan zuzendu zuen 1938an, Hitler Txekoslovakiaren etorkizuna erabakitzen ari zela. Goebbelsek hautatua baitzen, estatuaren kontrolpeko *Berliner Zeitung am Mittag*-en leterburuak hala aipatu zuen: “Estatuaren Operan, Karajan miraria”, musikaren industriak ere sarri erabili zuen kolokazio hura.

Baina Hitler eta Karajan jatorri sozial ezberdinekoak ziren, belaunaldi ezberdinetakoak: batak gosea pasa zuen eta lubakietan usteldu zen, bestea konfortean bizi izan zen. Karajanek itzelezko musika ikasketak egin ahal izan zituen, Hitler autodidakta izan zen. Hogeita lau urte zituen Karajanek Hitler Kantziler izendatu zutenean, 37 erori zenean eta mundu mailako etorkizuna jorratzeke. Kantzilerrak ez zuen jasaten partiturarik gabe zuzentzen zuenaren “harrokeria”. 1940an *Die Meistersinger* interpretatzen ari zela Bockelmann baxua ez zen abesten hasi bere txandan –mozkortuta ei zegoen– eta Goebbelsek eta Hitlerrek partitura aurrean izatera behartu zuten.

Kate historialariarentzat Hitlerrek utziriko hutsune sinbolikoa ordezkatu zuen zuzendariak. Autoritarioa, umiliatzailea. Zenbateraino eragin ote dute estetikoki dinamika pertsonal eta politikoen. Zenbateraino konbentzimenduz nazia, zenbateraino oportunistak Leggerekin izan axolagabekeria ezagututa. Adituek ez dute zalantzarik, bera baino zuzendari hobeak asko izan dira joan den mendean. Ezagunagorik gutxi, horrek emaitzarekin loturarik ez badu ere. ■



Donostia

Liburu azoka ekainaren 29tik uztailaren 16ra, Gipuzkoa plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Lekuz Leku VIII. Nazioarteko Jaialdia Bilbon

Hiriko paisaia dantza garaikidearen eszenatoki

Ekainaren 29an eta 30ean Abandoibarrako ibai ertzerara kaleratuko da dantza garaikidea, Guggenheimen eta Euskalduna jauregiaren arteko espazio berrira. Hala, arte eszenikoaren ahizpa txikiak erakustoki bilakatuko du bilbotarren pasealeku esanguratsua.

MYRIAM GARZIA

Argazkiak: La Fundicion

LUQUE TAGUA jaialdi honen antolatzaile eta La Fundicion aretoko programatzaileak ez lioke etsipenari bide eman nahi, baina egoera konplikatu dela nabarmendu digu, “aurtengo Lekuz Leku jaialdiari egun bat murriztu behar izan diogu finantzaketa arazoengatik”. Galdera dator atzetik: “Baina ba ote dago lekurik arrisku-saria eta futbola ez den zerbaitetarako?”. Aurtengoa zortzigarrena duen edizio honek ez du izango, bestalde, bideo sorkuntza lehiaketarik, eta beraz ez da, aurrekoetan egin den gisara, emanaldion behin-behinekotasunik jasoko. Hala ere, Lekuz Leku sorreratik bultzatu duen xedea mantenduko du, hau da, “hiriaren egunerokotasuna eten eta ibiltariari sorkuntza dantza hurbiltzea; dantza garaikidea popularizatzea”.



David Zambranok (Amsterdam) desirari buruzko lana aurkeztuko du ekainaren 30ean, EHUKo Bizkaia aretoan.

Aita Arrupe zubipea, kaia, Guggenheim ingurua eta EHUKo eraikinaren paraninfoa izango dira egunotako espazio eszenikoak, eta bertan dabilzanek ia kasualitatez egingo dute topo abangoardiako dantzarekin. “Ibiltarientzat alfabetizazio lana izan daiteke”, argitu digu Luque Taguak “baina baita dantzariarentzat ere, une batez ohiko espazio eszenikoa utzi, eta hiriko espazio honetan emango diren begiradak ia kasualitatearen fruitu izango direla jakin behar du”. Dagoeneko, badira zortzi urte Lekuz Leku jaialdia sortu zela, “eta argi dago osatu duela bere publiko zehatza, urtez urte handituz joan dena”. Bi egunotan 5.000 lagun inguru hurbiltzea espero dute antolatzaileek.

Kalitate handiko ikuskizunak izan ohi dira, irakurketa konplexukoak zein pultsu koreografiko handikoak, “baina publikoarekiko harremana atsegina izatea nahi dugu –jarraitu du Taguak– dantzariak badakite publiko horrek ez duela sarerrerarik ordaindu, pasealeku batean aurkitu duela emankizuna”. Bi elementu biltzen dira emanaldi hauetan, gorputzaren hauskortasuna batetik, eta hiriko espazioaren gordintasuna eta gogortasuna, bestetik. “Gugandik urrun dagoen publikoa dantza garaikideaz maitemintzea da gure asmoa. Hiria begiradez osatzen da eta horietako bat autore dantza da. Azken finean, dantzariak bere baitan dauden tentsio sozialak ere islatzen ditu bere lanean”.

Bertoko dantzariak, bertatik

Egunero bost proposamen, bost pieza labur eskeintzen digu Lekuz Leku jaialdiak, arratsaldeko 7etan hasi eta gaueko 10ak arte. Nazioarteko taldeak dira. Hala nola Mexikoko Tumaka T dantza taldea, Alemaniako SonuDos edota Amsterdametik etorritako

David Zambranoren dantza ekintzak. Jakina, Euskal Herrian sortutako dantza garaikideak ere izango du tarterik. Besteak beste, Krego-Martin Dantza konpainia, Damian Muñoz gasteiztarraren azken lana eta Mikel Aristegiren saioa. Muñozek Katalunia eta Italia ditu bizitoki aspaldion. Aristegik, berriz, Berlinen dihardu. “Bertoko dantzarien proposamenak interesatzen zaizkigu –Taguaren hitzetan–, bertan lan egiten duen jendea... Zubiak sortzea gustoko dugu, kanpoan lan egin arren, dantzari horiek Euskal Herriarekin duten lotura mantentzea. Arrazoiak arrazoi kanpora atera diren arren, guretzat garrantzitsua da euskal dantzarien komunitate hori sortzea, bultzatzea eta mantentzea”.

Lekuz leku erakusleioa da publikoarentzat. Bertoko sortzaileari nazioarteko harremanak sortzea ahalbidetzen dio. Kanpoan lan egiten duen bertokoari, berriz, itzultzeko arrazoiak. Baina batez ere denon gozamenerako aitzakia izatea nahi lukeela dio programatzaileak, “kultura aisialdia ere badelako, dibertimendu osasuntsua”.

Dantzarako gonbitea ere luzatzen zaio publikoari. “Gaualdia ixteko, dantzarako aukera eskainiko digu denoi Ines Uriartek. Dirudienez, ikuskizunek dantza egiteko gogoia pizten dio jendeari. Ikastaroa irekia egingo da, dantza egitea zerbait soziala ere badelako”.

Sortzaileekin esperientziak eta gogoetak partekatzeko aukerarik ere eskainiko zaio interesatuari, Guggenheimeko Kioskoan. Bideo emanaldi berezia ere izango da, Nazioarteko paisaia hiritarretan egiten diren Dantza Jaialdien sarearen berri emateko.

Dantzatzen Duten Hiriak deituriko sareak antzeko jaialdiak biltzen ditu, mundu mailakoak. Esate baterako, Txile, Argentina, Australia, Kuba, Brasil, Italia, Erresuma Batua, Alemania, Portugal, Suitza, Suedia edota Belgikako hirietakoak. “Bitxienean, jaialdi horien ezberdintasunak ikustea da, hiriaren eta bizi duten errealitate sozialaren araberakoak izaten baitira”.

Bukatzeko, euskal dantza garaikidearen osasun egoeraz galde egin nahi izan diogu



Vero Zendoya (Katalunia) biziraupenari eta hain oker ulertua den arrakastari buruz arituko da dantzan, Guggenheim inguruetan.



Lekuz Leku arkitekturaren eta dantzaren arteko topaketa da. Arteetan betikoena eta iragankorra lotzen ditu. Argazkian, iazko emanaldi baten irudia.

Taguari. Inbertitu dena ikusita, oso errentagarri suertatu dela nabarmendu digu, proiektu edota sektore gisa ondo ikusi duela: “Hemendik atera eta atzerrian ari diren dantzariei galdera bera egiten diet hona etortzen direnean, gurea nola ikusten duten. Erantzuna itxaropentsua izan ohi da, Euskal Herrian egiten dena oso kalitate onekoa dela uste dutelako. Falta du, jakina, egonkortasuna, egiten den lanari balioa ematea. Egun, dantza proiektu asko ez datoz konpainia handietatik. Proiektu txikiak izaten dira, unean unekoak, proiektu baten inguruan elkartzen diren dantzari konpainiak. Harremanak horizontalagoak dira, hauskorrek askotan, baina sarea sortzen dutenak, batez ere, sorkuntza garaikidean”. ■



Liburuak

KRITIKA

Steinbeck: shock eragilea

Helduen literatura | ELEBERRIA


Saioa Ruiz Gonzalez

ELEBERRIA amaitu eta zuzenean ekin behar izan diot idazteari. Laster batean irakurri ditut John Steinbeck-en eleberria osatzen duten 158 orrialdeak, eta amaierako kolpeak eragin didan emozio nahasketari ordena ezarri nahian nabil oraindik. *Shock* egoeran sentitzen naiz. Horrelakoa da Steinbeck jauna, hasieratik liluragarria eta amaieran harrigarria. Erakusten duen joera humanistak, AEBetako literaturaren zutarririk garrantzitsuenen lekuan kokatzen du.

Saguak eta gizonak istorio tragikoa da, arina irakurtzeko baina irensteko zail suertatzen den horietakoa. Halakoxea agertzen baita idazle amerikarra; bortizki errealista eta engaiatua.

1929ko Beheraldi ekonomikoaren ostean, Kalifornian barrena rantxoz rantxo herraturik ibili ziren mutilen erretratua eskaintzen digu. Baina gure harri-durarako, garai hartan bakardadean bidaiatzen zuten gizonen orde, idazleak bikote berezia sortu du. Lennie, mozko atzeratu-eskizofrenikoa, eta George, bere aspaldiko lagun eta aingeru zaindaria. Bien arteko babes erlazioan errotuz joango da eleberriarren zentzu tragikoa.

Irakurketan zehar nabaritu ditudan sentsazioei erreparatuz,



Saguak eta gizonak.
John Steinbeck.
Itzultzailea: Iñigo Errasti.
Alberdania, 2012.

eleberria bi zatitan banatuko nuke: lehen partea deskriptiboa antzeman dut, nekazal mundu maskulinoa nola egituratzen den kontatzeari ekiten baitio. Elkarriketen nagusitasunak mota ezberdinetako pertsonaiak txertatzeko aukera ematen du, egitura sozialaren irudia marraztuz. Hala ere, pertsonaia eta espazio ezberdinen kontraste bidezko tratamendu bikainak, gizarte horretako balore ziztrinenak azaleratzen ditu. Zentzu horretan, rantxoan bertan egiten den ahul/indartsu, txuri/beltz, zahar/gazte, gizon/emakume edota barne/kanpo bereizketak, sexu zein arrazaren araberako hierarkizazio sozialaren ispilu dira.

Bigarren zatian, aldiz, ekintza kateatuek bereganatzen dute protagonismoa. Narrazioaren abiadura azkartzarekin batera tentsioa ere areagotuz doa, eta amaiera tragikoa sinbolizatzen duten elementuak izango dira nagusi. Hastapenean deskribatzen den espazio zabal eta argitsua, orain espazio itxi itogarria bilakatu da. Bertan ikusten dugu Lennie txakur jai berriei maite-maite egiten, hala egiten baitu azal leun eta iletsua duen ororekin. Bat-batean txakurren mugimendua eten egiten da eta Lennie ez du zergatia ulertzen, ez baitu alboan bere aingeru zaindaria.

Jarraian datozen eszenak izugarri bortitzak dira, errukitasun eta karga emotibo sakonez zipriztindurik. Lennieren heriotzara arte ez dago etenik. Kontua ez da zer gertatzen den, baizik eta nola. Nolaketan horretan ezkutatzen baita, sentitzera gonbidatzen zaituztedan *shock*-aren muina.



ANDRA MARI
restaurante

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Rock&Ron.

Ze esatek.
CD-DVD. Oihuka.
Iraupena: 48'48".
14 euro.

Hunkitzeko eta hunkitua izateko zortea

AZKEN URTEOTAN sona handia hartu duen talde parrandero hau Trikizio, Skunk, Harlax, Nuke, The Txortains eta beste talde batzuetan aritutako lagunek osatutakoa da. Euskal Herriaren serioak garelako dioten arren, ska eta rocka nahastentzen duten taldeek jarraitzaile ugari izan ohi dute. Hala izan da iraganean eta halaxe da gaur egun ere. Ze Esatek taldea horren adibide garbia da. Erritmo biziko punk-popa oinarri, haizezko instrumentuek lagunduta eta egunerokota-

sunezko hitz garratz edo alaiek hauspotuta, kantu sorta freskoa batu dute lan honetan, tartean Azpeitiako KMK, 2010eko Ikasle Eguna eta Txori Barroteren alde idatzitako kantuak ere. Kantu itsaskorak eta biziak dira ia guztiak. CDarekin batera, Kubako biran bizitakoarekin egindako DVD xume bezain hunkigarria, biraren zenbait pasarte eta Kuba zatitxo bat ekarri dizkigute.

www.zeesatek.com

Ze esatek

«Musikatik bizitzea posible da, noski, musikaria ez bazara»

Zer dauka ska-rockak lehen eta orain hala erakartzeko? Zein da sekretua?

Musika estilo guztiek dute erakartzeko ahalmena eta denek dituzte aldekoak eta kontraokak. Gu dantzarako, parrandarako eta ondo pasatzeko abestiak egiten saiatzen gara, eta horretarako, akorde nagusietan eta erritmo azkarretan oinarritzen gara gehienbat. Hitzetan egunerokoari egiten diogu erreferentzia. Edozeinek presta dezake koktel hau, ez dugu esango kalimotxo asmatu dugunik!

“Lanetik etxera itzultzen naizenean ‘zer egin dezugu gaur’ galdetzen didatenean ez dut gezurrik esan behar”. Eta bada musikaz bizitzerik?

Jendea jipoitzen edo komisaldegietan torturatzen duten polizia horiei abesten diegu hori. Horiek ere guraso dira, senar, emazte, seme, alaba... Harrigarria da nola izan dezaketen kontzientzia hain lasai! Iñigo Cabacas edo Rosa Zarra hil zutenek, adi-



bidez, etxera iritsi eta bikotekideari zer esango zioten? Baina zuk esandakoari jarraituz, musikatik bizitzea posible da, noski, musikaria ez bazara! Gure kasuan ezinezkoa da, taldean bederatzi izanik.

“Aurpegiaren irria, bihotza gorria, badator musikaren iraultza berria”. Ezinbesteko osagaiak?

Ateratzen zaiguna egiten dugu, nahi duguna. Estereotipo gutxi betetzen ditugu eta harro gaude: ez gara

auzoko gaiztoenak, mozkorrenak, guapoenak, ezta militanteenak ere... Lehengo *pringauak* gara.

“Ezer ez da doakoa, larrosak arantzak dauzka”. Bide luzea egiteko?

Garbi dago baietz, luzea eta gogorra izan den moduan, oraindik ere aurrean dagoena hala izango da ziur. Baina baiko-

rrak gara, bai. Irribarre egin, irabaziko dugu eta!

“Katia”. Kuba poesia hutsa da? Zergatik?

Abestia kontzertuetan kubatarrei eskaintzeko idatzi genuen eta harre- ezin-hobe izan zuen. Kuba poesia hori baino gehiago da, bihotza, duintasuna, poza, eskuabaltasuna... baina hara joan behar da ezagutzeko. ■



Ezpalak

JON TORNER

Begoña Atutxaren 'Euskal rock erradikala' filma estreinatu da

HERTZAINAK, Zarama, Kortatu, Barricada, La Polla Records, Eskorbuto (argazkian), Cicatriz, RIP eta beste hainbat taldetako musikarien hitzak jaso ditu Begoña



XAVIER MERCADE

Atutxak *Euskal rock erradikala: 80ko hamarkadako Martxa Handia* dokumentalean. Pasa den astean aurkeztu zuen, Bilboko Alondegian, *Live Music Experience* erakusketaren baitan. "Santurtzitik Bilbora, gaztetxe eta auzoetatik doa dokumentala euskal rock erradikalaren historiaren bila, hiriz hiri", dio filmaren afixak. "Protagonistek hitz egingo dute, haietariko asko dagoeneko gure artean ez dauden arren". K2000 ekoizpenetxeak egin du dokumentala Espainiako TVE telebistarako, eta aurki La2 katean emitituko dute.

Euskal Herriko zazpi antzokik Zubi proiektua sortu dute

EGITASMO BERRI HONEN helburu nagusia euskal antzerkia bultzatzea da. Zubi proiektuaren bidez, euskarazkoak edo testurik gabekoak izango diren lanak sarituko dituzte eragileek. Irabazleak diru laguntza eskuratuko du, zazpi antzokietako bat erabili ahal izango du lana prestatzeko eta ondoren bere lana zazpi gunetan eskainiko da. Ekimenean parte hartuko dutenak: Durangoko San Agustin Kultur Gunea (Bizkaia), Ametx Zornotza Aretoa (Bizkaia), Elorrioko Arriola Aretoa (Bizkaia), Luhusoko Harri Xurrikarrikako arteen fabrika (Lapurdi), Donazarreko Herri Antzokia (Nafarroa Beherea), Leioako Kultur Gunea (Bizkaia) eta Aulestiko Artedrama Euskal laborategia (Bizkaia) izango dira. "Erronka bat da guretzat. Adiskidetasun mugimendua izan da, elkarrekin lan egiteko. Euskal antzerkia euskara gizarteratzen laguntzeko oso garrantzitsua da", azpimarratu zuten sortzaileek Durangon egindako aurkezpenean. Proiektuak aurkezteko epea irailaren 14an amaituko da eta azaroan jakinaraziko dute irabazlearen izena. Lanak aurkezteko: info@artedrama.com edo <http://harrixuri.blogspot.com.es>.

Maddi Sarasua Itsasuko (Lapurdi) bertsolariak irabazi du bigarren Euskal Herriko XXIV. Eskolarteko txapelketa helduen mailan (14-18 urte artekoan). Gemma Urteaga beasaindarra (Gipuzkoa) sailkatu zen bigarren lekuan Aguraingo Harresi Aretoa (Araba) jokaturako finalean. Hamalu urtez azpikoetan, berriz, Paul Iruretagoiena ataundarra (Gipuzkoa) nagusitu zen, Txaber Altube abadiñoarraren aurretik.

'**Surf x 100 mende bat surfean**' erakusketa paratu dute Bilboko Itsasadarra itsas museoan. Kirol horrek Gipuzkoan, Bizkaian, Kantabrian, Asturiasen eta Galizian izan duen bilakaera jaso du erakusketak, bideoen, argazkien, aldizkarien eta surfeko taula zein trajeen bidez. Urtarrilaren 13ra arte izango da zabalik.

• **Pello Lizarralde elkarrizketatu du Berrian Iñigo Astizek**, *Orbanak* nobela dela-eta: «Idatzi diren azken bi nobela gogoangarrienak, eta arriskurik handiena hartu dutenak beteranoek idatzitakoak dira. Oso kezagarria da hori. Ramon Saizarbitoriak eta Koldo Izagirrek idatzi dituztenak. Abangoardia ezagutu zuten biek, oso bide propioa egin dute, eta bereari eutsi diote. Kontzesiorik egin gabe. Ez dut hori ikusten gazteen aldetik, eta oso kezagarria iruditzen zait (...) Postmodernitateak ekarri duen generoen apurketa-eta erabat desagertuko da. Euskarriari eta formari eman zaio garrantzia, eta niri barregarria iruditzen zait. Facebookek aldatuko duela literatura? Barrez leheritzen naiz. Bestela irakurriko dela? Beharbada. Baina esan behar dena da garrantzitsua. Hori ikasi ez duenak nerabezaro literarioa ez du pasa».



Remigio Mendiburu
Formaren eraikuntza

Oteiza Museoa
2012ko ekainaren 14tik urriaren 7ra

FUNDACIÓN MUSEO FUNDACIÓN MUSEO
JORGE OTTEZA

Nafarroako Gobernua

SISTEMA DE MUSEOS DE NAVARRA

Laguntzaileak
kutxa gizarte ekintza

C/ de la Cuesta 7 - 31486 Alzuza - Tel: 948 332074 - Fax: 948 332066 - info@museootteiza.org - www.museootteiza.org



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

UNAI BREA

Kazetari konprometituaren alde

Contra la neutralidad. Pascual Serrano.
Península argitaletxea, 2011. 271 orrialde.

PASCUAL SERRANO (Valentzia, 1964) hedabideen analisian espezializatutako kazetaria da. Interneteko *Rebelión* agerkariaren sortzailea da, eta gaur egungo kazetaritza ikuspegi kritikoz aztertzen duten hainbat saiakeraren egilea. *Contra la neutralidad* (Neutraltasunaren aurka) liburuan, eraso egiten dio kazetaritza distantziakidearen ideiarri. Lanbide honen patuaz hainbeste hitz egiten ari den honetan, Serranok saihestu egin du negozio eredu eta euskarri berriei buruzko eztabaida, eta ofizioaren muin-muina doa zuzenean: zertaz eta nola mintzatu behar dira kazetariak?

Kausa baten alde egiten duen kazetaritzaren balioa defendatzeko, egileak XX. mendeko bost periodista handiren biografiak bildu ditu, labur bada ere. John Reed, Ryszard Kapuściński, Rodolfo Walsh, Edgar Snow eta Robert Capa, gertu-gertutik bizi izandako

Loyalist militiaman at the moment of death, Robert Caparen argazki ezagunena.



gatazken berri eman zuten bostek, lehen laurek elean bitartez eta irudiekin bosgarrenak, eta denek egin zuten bat gatazka horietan ziren alderdietako batekin; baina Serranoren ustez ez zuten horregatik kazetaritza traketsa egin, kontrakoa baizik: haien lanak ez die ezer zor zehaztasunari. Aldiz, gaur egun nekez aurkitzen den osagaia dute haien kronikek, liburuek, argazkiek: bihotza. *Contra la neutralidad*-en tesi nagusia da era horretan egindako kazetaritza askoz tresna hobea dela mundua ulertzeko, etengabe ustezko erdigune baten bila ari dena baino. ■



hizkuntza
ELHUYAR
zerbitzuak



Elhuyarren smartphoneetarako aplikazioa euskara ikasteko

Ikasi euskara
Aprende euskera
Learn Basque
Apprenez le basque

Nabigaziorako hizkuntzak:
gaztelania, ingelesa eta frantsesa.



Salgai 3 €-an.
Deskargatu doako demoa.

Ikasi euskarazko oinarrizko hiztegia:

- Ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko tresna.
- Entzuteko ariketak, mintzatzeko ariketak eta irakurri eta idazteko ariketak.

www.elhuyar.org/kxo!



Ihesi



Testua eta argazkiak:

GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz:

Aratz-Umandia (Araba)



Aratzeko gailurra eta askoz gehiago

Aratzeko tontorra ez da gertuan duen Aizkorriko gailurra bezain bisitatua, ezta gutxiago ere, baina horrexegatik ziur aski badauka zerbait berezia, zerbait erakargarria. Gailur ezagunago baten itzalean dagoen gailur are interesgarriago horietakoen adibide garbia da Aratz. Proposatzen den ibilaldi zirkularra osatuz gero, Aratzera igotzeaz gain Asparrenako hainbat leku ezagutuko ditugu, beste zenbait gailur barne.

ARABA, NAFARROA ETA GIPUZKOA herrialdeen muga den Arbarrain edo Hirumuga tontorra, Olanoko haitz handia, eskalatzailen paradisu diren Eginoko hormak, Lezeko kobazulo misterioitsua... Hamaika txoko gordetzen ditu Altzania mendilerroak inguru honetan.

Hamar herrigunek osatzen dute Asparrenako (Araba) udalerrria, eta gure txangoa biztanletsuenean hasiko dugu, Araian. Errepide nagusitik gatzela, hegoaldetik iparralderako norabidean zeharkatuko dugu herria, auzune garaienera iritsi arte: Intuxi. Bide guztiek Ajuria eta Urigoitia burdinola zahar abandonatura garamatzatela irudituko zaigu, baina ez ditugu, hasiera batean behintzat, gure pausoak bertara zuzenduko.

San Pedro zentral hidroelektrikoa –energia berriztagarrien museoa– dagoen inguruan ekingo diogu bideari. Zirauntza errekararen iturburura doan xenda utzi eta ekialderantz joko dugu, baso pista zabal eta eroso batetik, poliki-poliki, garaiera irabazten dugun neurrian, Arabako Lautadaren zein gure bizkarretara daukagun Entzia mendilerroaren gaineko ikuspegia ederragotzen joango delarik. Martinen txabolara iristea da gure lehenengo helburua, eta bidea nabarrena da lehenengo zati honetan behintzat, baso pistari jarraitu baino ez baitugu egin beharko –bidegurutzeren bat dagoen guztietan, gorantz egiten duen bidea hautatu–. Benetan da ederra Martinen txabola kokaturik dagoen mendi muinoa: Albeizko tontorra ekialdean, lautada hegoaldean... eta



Umandiako hegoaldeko aurpegi pikoak parez pare. Gauden lekutik begiratuta, benetan den baino zailagoa dirudi parean daukagun malda gaindituz Umandiako tontorrera heltzeak, baina behin mendiari metroak lapurtzen joan ahala, ez zaigu horrenbestereinokoa irudituko. Hori bai, izerdia erruz isuri beharko dugu.

Igoera “mendizaleena”

Martinen txabolatik Umandiarako igoera zuzena ez da, ziurrenik, txangozaleek sarrien hautatzen dutena gailur lerdenera igotzeko,

baina igoera “mendizaleena”, beharbada, berau dugu. Atsedetik gabe, metroz metro, xenda arrastolari jarraituz batzuetan eta kairn zenbaiti segika besteetan, Umandiako gailurrera helduko gara (1.225 m). Ikuspegia zoragarria da, Arabako Lautadara eta Entzia mendilerroari begira batez ere. Iparralderako ikuspegia mugatuagoa da, basoaren eraginez. Edozein kasutan, jende gutxi bisitatu ohi duten gailur honetan bakardadeaz gozatzeko aukera izango dugu, ibilaldia segida eman aurretik. Mendilerroko gailurrik garaienak zain

NEVERMIND TRIO
Be

JORGE ABADÍAS
A Tablero


JUAN DE DIEGO
“TRAKAS”
Erbesteá

JERÓNIMO MARTÍN
SEXTETO
Quinoa

HASIER OLEAGA
Cantus
Caterva

ERRABAL JAZZ


94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com



Allarteko tontorretik ikusita, Allaitz eta atzean Aratz.



Aratz, Elurzuloak izeneko tontorretik ikusita.



Ur-jauzia Zirauntza errekaen iturburutik gertu.

dauzkagu, eta aurrera jarraitzeko ordua da.

Atabarrateko baso isila

Umandiako tontorretik Atabarrateko pasabide ezagunera jaitsiko gara, basoan barrena. Bide definituegirik ez dago eremu horretan, baina metro gutxi dira, mendi lepoa bertan hauteman daiteke eta senak dioskunari kasu eginaz, erraz iritsiko gara. Ederra da, zinez, Atabarrate inguruan basoa, eta bertatik behin eta berriz igaro arren, beti dauka mendizaleak zer edo zer berria deskubritzearen sentipena; basoaren isiltasunak, izan ere, zentzumenak adi jarrarazten dizkio bertaratzen den edonori.

Atabarraten, bidegurutze garrantzitsua dela kontuan hartuz, margo ikurrak ugaritu egingo dira –Zegama-Aizkorri mendi maratoni sonatua ere inguru honetatik pasa ohi da–, baina guk zuzenean gorantz jarraituko dugu, Allarteko tontorraren bila. Zegama-Aizkorri mendi maratoniak Allarte eta Allaitz gailurrak eskuinaldetik inguratuz jarraitzen duen xenda ederragoa ez denik ez dugu esango, baina Umandiatik Aratzerarteko gailurrak igotzea bada gure xede, Allarteko maldei ekitea beste aukerarik ez zaigu geratuko. Igoera ez da oso gogorra, eta bide arrasto ez oso nabarmenari segika, minutu gutxian helduko gara Allarteko (1.236 m) tontorrera. Aratz geroz eta gertuago daukagu.

Aratzera bitarteko azken maldak

Allaitzeko gailur koxkorra gainditzea baino ez zaigu geratzen Aratz mendiaren bukaerako maldei aurre ekiteko. Xenda batek hegoaldeko inguratzen du Allaitz, zuzenean Azkosaroko soilunera eramango gaituelarik nahi izanez gero –margo ikurrez hornitua dago xenda hori–, baina guk, Allaitz inguratzen hasi eta erdibidean edo, gorantz joko dugu zuzenean, Allaitz edo Imelekuko gailurreraino (1.319 m). Jaitsiera labur bezain azkarra, eta Aratz igotzea besterik ez zaigu geratzen gorabeherei amaierak emateko. Malda gogor xamarra da, baina ez Umandiako zuzeneko igotera bezainbeste. Zegamako mara-

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria

ihesi.com



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

argia
proiektua

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

GPSa futbolarien balioa neurtzeko

2012KO EUROKOPAN erabiltzea debekatuta baldin badago ere, badirudi GPS sistemak asko lagun diezaiekeela futbol entrenatzaileei erabakiak hartzeko garaian.

Futbolari on batek hainbat ezaugarri izan behar ditu, baina garrantzitsuenetakoa alderdi fisikoari dagokiona da. Entrenatzaileek euren begien bidez ikusten dutena erabiltzen dute informazio erabakigarri gisa, baina askotan beraien usteak oso urrun egon daitezke errealitatekin.

EHUko ikerlaria den David Casamichanak MinimaxX v.4.0 GPS erabili du azterketa egiteko. Tresna horrek segundoko hamar datu gordetzen duenez, oso profil fisiko osatuak lor daitezkeela ebatzi du. Atzelariak distantzia motzak egiten dituzte partiduetan; erdilariak, aldiz, luzeak; eta aurrelariak korritzen dutena, askotan, esprintean izaten da. Postu bakoitzerako behar diren ezaugarri fisikoak jokalaria jakin batekin bat datozen ala ez ongi neurtu daiteke arestian aipatu tresnarekin.



TECHENROSA.WORDPRESS.COM




Helduen ama zelulak bizirik heriotzaren ondoren

HILBERRI DEN organo-emale baten organoak egun batzuk mantendu daitezkeen bezala, ama-zelulen kasuan zer gertatzen da, pertsonaren heriotzarekin batera hiltzen dira ala aukera dago egun batzuetan mantentzeko eta transplanteetan, adibidez, erabiltzeko?

Zenbait ikertzaile frantziarrek frogatu berri dute helduen ama zelulek egun batzuetan irauten dutela heriotza gertatu ondoren. Ikerketarako bide berriak zabaltzen ditu horrek.

CNRSko ikerlarien arabera, giza muskulu-tako ama zelulek hamazazpi egun iraun ditzakete heriotzaren ondoren; saguen orno-muinetakoa ama zelulek, lau egun. Heriotzaren ondoren ama zelulak "lotan" geratzen direnez, ez dute energia askorik behar izaten irauteko, eta berriro ingurune energetiko batera igarotzen direnean berehala hasten dira biderkatzen. Portaera horrek erabilera terapeutiko garrantzitsuak izan ditzake.



LAPASIONCIENTIFICA.BLOGSPOT.COM



Danoneren iragarkiak kendu dituzte Frantziako telebistetatik

Espainiako telebistan Danoneren iragarkiak noiznahi ikusten ditugu, baina ez da gauza bera gertatzen ari Frantziako telebistan. Gezurrezko publizitatea egiten dela argudiatuta, Frantziako telebistetatik kendu dituzte "defentsak" indartzen dituztela dioten iragarkiak. ttiki.com/39766 (Frantsesez)

Karbono dioxidoa energia geotermikoaren transmisorea izan daiteke

Lur azpian dagoen bero geotermikoaz baliatzeko karbono dioxidoa erabil daitekeela diote Minnesotako (AEB) Unibertsitateko ikerlari batzuek. Karbono dioxidoa zirkuitu itxi batean sartuz, lur azpiko beroa xurgatu eta lurrazalean turbinak higitu ditzake, eta era horretan elektrizitatea sortu. ttiki.com/39767 (Gaztelaniaz)

Erregaia aurrezteko, errepide zurrunagoak

AEBetako MITeko ikerlari talde baten arabera, errepideetan zoru zurrunagoak erabiliz erregai kontsumoa gutxitu daiteke. AEBetan, adibidez, aurrezpena %3koa izan daiteke; 12.000 milioi eurokoa dirutan. Modu horretan, 46,5 milioi karbono dioxido tona gutxiago emitituko lirateke. ttiki.com/39768 (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Xarmaz

LURRINEN XARMA... Usainek dugun eta animalienara garamatzatela uste dut. Neu behintzat bai, ametsetara. Zakur ametsetara ote? Eta xarmak xarmara. Xarma, *Carpinus betulus*, gure zuhaitz ezezagunenetakoa zaigu. Batzuek pago-lizarrara ere deitzen diote. Europa freskoko zuhaitza da; kontinentearen erdi aldean hedatua da eta mendi garaiak gustatzen zaizkionez –600 metrotik gora bizitzea gustatzen zaiola esan ohi da– Pirinioei segika sartua da Euskal Herrian. Iberiar penintsula osoan berezko xarmak Bortzirietan, Arantzako mugan bertan Igantziko herri lurretan dagoen San Juan Xar leize-ermitaren inguruan eta Bidasoa ibairako pendizetan bakarrik omen ziren. Gipuzkoan ere, Alegiako Arterrekaren ibarreko toki berexi batean 200 metro inguruko garaieran ere ziento erdiren bat aleko basotxo bat badela jakin da, ordea; horixe berezia, hori baino hegoalderago edo mendebalderago espezia hau ez da aurkitzen. Espezia arraro bihurtua dugu, eta desagertzeko arriskuraino eramán dugunez Nafarroako baso erlikia horri euste-



Xarma, *Carpinus betulus*.

ko Natur Erreserba izendatu zuten 1987an eta EAEko Espezia Mehatxatuen katalogoan “galtzeko arriskuan” daudenen zerrenda gorrian dago. Ez da harrizkoa, bere egurra estimu handitan izan baita, sutarako bezala zuretarako. Frantzian ere ez dute saltzeko eta bertako basoen %6 bere du. Iparraldean ezagunxeagoa da, Uztaritzetik harantz behinik behin.

Gaur ezezaguna eta ia galdua badugu ere garai batean, aspaldi, Behe Paleolitoan, duela 150.000 urte baino lehenago, oso ugaria omen zen xarma lurralde honetan. Zestoako Iri-

kaitz leizekoa bezalako garai hartako aztarnategietan egindako indusketetan azaldutako polen arrastoen frogetatik jakin daiteke, nonbait.

Igantzi eta Arantza arteko San Juan Xar izeneko leize-ermitaren aldamenean ur miragariak ematen dituzten iturriak omen dira.

Miraria xarma bera oraindik ere gure artean izatea, da. Leize eta zuloen inguruetan besterik ez bada ere...



Harizetik platanora

Garai batean haritzak (*Quercus robur*) zabal eta naro izango ziren toki batean, urats iturrien sufre usain eta zapore gozoren atzetik ibilia naiz. Aretxabaletan. Neguko egun argian urats-urak ahosabaia lehortutako gozamenen nabilela, danba!, platano torturatua hortzen aurrean. Udazkenean, agian udan, batek daki, goizegi inausitako platanora (*Platanus x hispanica*) negu aurretik adar berritua, hotza etorri denean adar denak erreta. Erreserbarik gabe kale gorrian, inausketa zauriak bizirik...

Torturaren aurkako protokolo, biktima eta antzekoekin ahoa neurri ari garenean haritza edo platano izan alde ederra dago, zenbait tokitan behinik behin!



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Tebasko Batailoi Sakratuaz harro

KERONEA (GREZIA), K.A. 338. Filipo II.a Mazedoniakoak eta haren seme Alexandro Handiak Keroneako gudua irabazi zuten eta, horrenbestez, Greziako hiri-estatuak independentzia galdu zuten. Mazedoniarren ejertzito indartsua ikusita, arerio gehienek ihes egin zuten, baina 300 bat soldaduk, inguratuta, inolako aukerarik gabe, hil arte eustea erabaki zuten. Plutarkoren hitzetan: “Garai-pena lortuta, Filipok gorpuei erreparatu zien, eta zera galdetu zien: zein dira besarkatuta, heriotzan eta maitasunean batuta dauden hildako hauek? Tebasko Batailoi Sakratua, Laioren leinuko gizonezko maitale eta maitatuak, erantzun zioten. Eta Filipok esan zuen: hil dadila gizon hauek zerbait oker egin edo sufritu zutela susmatzen duen oro!”

Antzinako Grezian harreman homosexualak onartuak zeuden, eta ohikoak ziren ejertzitoko kideen artean. Hainbat militar ezagunek gizonezko bikoteak izan zituzten –Teronek, Harmodiok, Aristogitonnek edo Alexandro Handiak berak–, eta heroi mitologikoren bati ere egotzi zizkioten harreman homosexualak. Akilesi, esaterako.

Tebasko Gorgidas komandanteak ohitura hori sistematizatu zuen eta Tebasko Batailoi Sakratua osatu zuen 150 bikote homosexual bilduta. Bikotekide batek esperientzia handiago izaten zuen, eta *Heniochoi* (gidaria) zeritzon; bestea gazteagoa izan ohi zen eta *Paraibatai* (lagun) esaten zioten.

Batailoia greziar infanteriako elite taldea izan zen 33 urtez, eta berehala soldaduen adorea gatik egin zen ezagun. Honela azaldu zuen Plutarkok indar horren sekretua: “Tribu edo familia bereko gizonen artean adorea eskasa izan ohi da, arriskuak estutzen



Keroneako gudu zelaian Filipo II.ak eta Alexandro Handiak Tebasko Batailoi sakratuaren omenez eraikitako lehoia.

dituenean; baina maitasunean oinarritutako laguntasunak sendotzen duen batailoia ez da inoiz hautsiko eta menderazina da; maitaleak maitatuen aurrean eta maitatuak maitaleen aurrean duintasuna galtzeko beldur baitira, eta arriskuari gogotsu aurre egiten baitiote, batzuk eta besteak lasaitzeko”. Baina dena emateko prest dagoenak dena galtzeko arriskua du, eta horixe gertatu zitzairen 300 soldaduei Keronean.

1924an Keroneako gudu zelaian industen ari zirela, arkeologoek harrizko lehoi bat aurkitu zuten, eta haren inguruan, 254 gorpuren arrastoak. Filipo II.ak eta haren seme Alexandrok hildakoak ehorzterazi zituzten eta, haien omenez, lehoiaren monumentua eraikiarazi zuten. 1969ko ekainaren 28an Stonewalleko istiluek gay harrotasunaren mugimendua abiarazi baino 2.300 urte lehenago, maitale homosexual talde batek etsaiak ere harrotasunez bete zituen.



Arrastoak

Gizako piramideetara txango birtuala

GIZA3D izeneko proiektua jarri dute abian Harvardeko Unibertsitateak eta Bostoneko FineArtsMuseum erakundeak, edonork espazioan eta denboran antzinako Egiptora bidaiatu dezan; birtualki, jakina. IV. dinastiako faraoiek Gizako goi-ordokian eraikitako piramideak xehetasun osoz eta eraiki zituzten garaiko itxuraz eta jardueraz jasotzen ditu proiektuak. Erabiltzaileak bere kabuz egin dezake txangoa, edo bisita gidatua aukera dezake. Ezustekoak ere topa daiteske bidaiari birtualean, esaterako, Keops faraoiaren ama Hetepheres erreginararen altzorra. Interneten doan egin daiteske bisitaldia, bit.ly/JfWk2r helbidean.

GIZA3D



Giza3D bistaldi birtualeko irudiak.

Nafarroako konkista

Artzain gabeko ardiak bezalaxe?

Gaztelak erresuma konkistatu ostean, eztabaida itzela izan zen Gortek Nafarroako bizitza politikoan izan beharreko parte-hartzeaz. Baziren defendatzen zutenak erregeren gainetik behar zutela Gortek, eta iraganera jo zuten horretarako: erresuma erregerik gabe gobernatua izan zen *interregno*-aren bila.

SANTI LEONE

KONKISTAREN ONDOREN Gaztelak Nafarroako erresumako erakundeak eta legeak errespetatu zituelako mitoak onespren handia izan du zenbait historialariren artean. Konkista prozesua latza izan zela onartuta ere, Nafarroak ustez geroago izan zuen estatusa baliatu dute historialari *navarrista* anitzek, azken buruan Espainiarekin bat egitera behartua izana onuragarria izan zela defendatzeko.


Historia, ordea, konplexuagoa da. Izan ere, Nafarroako estatusa eztabaidagai izan zen XVI, XVII eta XVIII. mendeetan, eta denbora luze horretan gertatu ziren gatazka eta debateetan ez da zaila ikustea Nafarroan eta Gaztelan arrunt ikuspegi diferenteak zirela, erresuma konkistatu berriaren egoerari zegokionez. Eta ez da luze esperatu beharrik: konkista akitu eta gutira hasi baitziren zenbait idazle nafar historiografa berritzen, egoera berriari buru egiteko asmoz. Izan ere, berriki Fernando Mikelarena historialariak aldarrikatu duen bezala, izan baitzen bizitza 1521. urtetik aitzina.

Hain zuten ongi gobernatu, ezen ez baitzuten erregeren beharrik izan

Vianako Printzeak 1453-1455 urteetan prestatu zuen bere *Kronika*, artean Nafarroa independente zelarik. Printzeak helburu bakarra izan zuen testu hura idatzarazteko: errege



Vianako Printzeak bere *Kronikan* (1455) dio nafarrak "artzain gabeko ardiak bezalaxe" ibili zirela Erresumaren hasmentan, erregea hil ondoan oinordekorik ez zutelako aurkitzen. Goian, José Morenok 1881ean egindako Printzearen potreta.



XVII. mendeko irudia, Nafarroako Gorteetan Erregea "altzatzen".

bihurtzeko bere eskubidea aldarrikatu nahi zuen, Juan II.aren aitzinean. *Kronikako* narrazioan, beraz, dena da errege zilegien gorazarre, eta usurpatzaileen gaitzespen. Erregea baita, Vianako Printzearen ikusmoldean, piezarik ezinbestekoena Nafarroako arkitektura politikoan. Erresumaren hasmentan nolakoa zen kontatzen ari delarik, Printzeak aipatzen du nafarrak erregerik gabe ibili zirela denboraldi batez, erregea oinordekorik gabe hil ondoan: eginahal guziak egin arren, garai hartan "artzain gabeko ardiak bezalaxe" ibili ziren nafarrak.

Ikusmolde hori nabarmenki aldatu zen konkistaren ondorengo lehen urteetan. 1534 inguruan idatzitako *Kronikan*, Diego Ramirez Avalos de la Piscina historialariak ere, Vianako Printzearen antzera, *interregno* baten berri emanen digu. Oraingo honetan, ordea, erregeak, hil baino lehen, erresumako jaun gorenak deitu eta hamabi nobleri eman zien erresuma gobernatzeko agindua. Eta horrela, dio Avalosek, hamabi noble horiek "hain zuten ongi gobernatu, ezen ez baitzuten erregeren beharrik izan". Are gehiago, haien autoritatea hain zen handia, ezen, "lege eta foruaren

arabera, gaurdaino izan duten lehen-tasuna erregeren eta haren kontseiluaren gainetik".

Avalos de la Piscina ez zen interesik gabeko antigoaleko kontuak aztertzen ari. Zuzen-zuzenean Nafarroako egoera berriaz ari zen: testuko hamabi nobleak XVI. mendeko Gorteak ziren, erregeren eta haren boterea defendatzen zuen Errege Kontseiluaren gainean zeudenak. Erregeak, alegia, ezin zuen legerik eman Gorteen iritzia aintzat hartu gabe –Gaztelan egiten zuen bezala–: Gorteen boza aditu beharra zeukan. Horra Avalosen mezua. Haren *Kronikan*, artzainik gabeko ardiak izatetik erregeren beharrik ere ez izatera pasatuak ziren nafarrak: iraganari begirada berria botaz, oraina berrasmatu nahian zebilen Avalos de la Piscina.

Ez baita erresumarik gabeko legerik, ezta legerik gabeko erresumarik ere...

Horrela, esaldi horrekin, eskatu zioten Gorteek Carlos I.ari *Fuero reducido* delakoa onar zezan, 1530ean. *Fuero reducido* hura –*Foru batua* izan liteke itzulpen egokia– osatzearena

konkista aitzineko proiektua bazen ere, konkista gertatu eta gero gauzatu zen. Bertan, Erdi Aroko Foru orokorra eguneratu egin zuten, "gauza berririk gaineratu gabe", edo hala adierazi zuten Gorteek behinik behin.

Foru batua dantzan ibili zen XVI. mendean, baina ez Carlos I.ak ez Felipe II.ak, Nafarroako erakundeak hainbeste maite eta errespetatzen zituzten haiek, ez zuten inoiz onartu nahi izan. Erabil dezatela nahi badute, baina hobe onespenik ez ematea, izan zen Gaztelako Kontseiluaren aholkua.

Eta, egia erran, Gorteek kontra-koia adierazi arren, Foru batuan bazen gauza berririk. Bitxikeria hau, kasu. Erdi Aroko Foru orokorreko sarrerak honela zioen: "Hasmentan, Foruak ezarri zuen Espainian erregea nola hautatu behar zen..."; proposaturiko Foru batuan, ordea, esaldi hori honela zegoen idatzia: "Hasmentan, Foruak ezarri zuen Nafarroan erregea nola hautatu behar zen..." Foru batuan ere, iragana berridazten ari ziren, orainari hobeki aurre egiteko.

Ordenantzetatik Sindikoen legeetara

Edonola ere, Gaztelatik ere saiatu ziren Nafarroako historiografia eta historia legala komeni zitzaientz izuspuntutik berridazten. Foru batua bazterturik baina legeak beharrezkoak zirela ikusita, Errege Kontseiluak bere lege bilduma bultzatu zuen. Emaitza *Ordenantza zaharrak* izeneko liburua izan zen, Pedro Balanza eta Pedro Pasquier abokatuek prestatua eta 1557an argitaratua. Bertan, mota guztietako legeak agertzen zaizkigu, erregeak berak emanak dira batzuk, eta erregeak Gorteekin batera adostuak, beste batzuk. Baina ez dira berdin-berdinak denak. Erregeak ezarritakoak lehen liburuan daude bilduak; Gorteen parte-hartzea izan zutenak, berriz, bigarrenean. Lehenbizikoaren testua hitzez hitz dago kopiatua; bigarrenena, aldiz, laburbildua dago. Nabardurak dira, ia-ia oharkabean hierarkia txiki bat markatzen dutenak bi lege klaseen artean.

Bestalde, Pasquierek erregeari egotziko dio erresumako ilustrazio



Nafarroako Ordenantza Zaharren bigarren liburukia; Gorteen parte-hartzeaz ari da.

zituenik. Monarkiaren aldetik halako tolerantzia sumatzen zen, bakea mantentze aldera, baina horrek ez du erran nahi konkistatzailearen eta konkistatuaren arteko harremana ona edo gatazkarik gabea izan zenik.

Konkista gertatu bezain fite, nonahi kausitzen ditugun zantziek argi erakusten dute Nafarroan abian zela historia berrikuste eta berridazte prozesu bat, egoera berrian erresumak ahalik eta independenteen –edo ahalik eta autonomoen– segi zezan. Baina historiaren begi berriekin idazte hori modu polemikoan gertatu zen, Gaztelatik –eta, zenbaitetan, Aragoitik– heldu ziren bertsiorekin borrokan. Avalos de la Piscinaren *Kronika* aipatu dugu hemen, baina historiografia XVII. mendean loratu zen benetan, kanpoan osaturiko kondairekin solas amaigabeen. Foru batua eta lege bildumak aipatu ditugu, baina erregeak uko egin zion lehenbizikoa onartzeari, eta foruen kontrako erasoak behin eta berriz gertatu ziren.

Erabil dezatela Foru batua nahi badute, baina hobe onespenerik ez ematea, izan zen Gaztelako Kontseiluak Erregeri egin aholkua

Nafarroaren integrazio zorientsuarena fikzioa izan zen, baina, neurri batean, nafarrek berek asmatutako fikzioa, erresumarako hain onuragarriak ez ziren bestelako fikzio batzuei arropostua emateko. Garai hartako perspektiba (nahita) ahantzita, fikzio horren zer-nolako erabile-ra egin duten XX eta XXI. mendeetako *navarristek* beste kontu bat da, beste momentu batean kontatu beharrekoa. ■



legalaren meritu guttia. Antzinako garaiez geroztik, trebeak izan dira nafarrak mai-ruen kontrako borrokan, idatziko zuen Pasquierrek 1567an, baina ez dute inolako jakin-minik izan beren lege, foru eta ordenantzak bildu eta inprimarazteko. Ondorioa garbia zen: Erregearen aginduari eta Pasquierren lanari esker, legerik gabeko denbora basa hura finitua zen. Konkistak, hitz batean, ilustrazioa ekarri zuen Nafarroara.

Gorteen ez zuten inoiz Balanzaren eta Pasquierren lege bilduma onartu –nahiz eta, praktikan, erabili egin zuten–, baina XVII. mendera arte ez zuten lortu beren uestez egokia zen bilduma argitaratzea. Gortetako bi “funtzionariok”, Pedro de Sada eta Miguel de Murillo sindikoeak, prestatu zuten 1614an. Bilduma hark ez zekarren Gorteen parte-hartzerik gabeko legerik, eta, sarrerako lehen lerrotik beretik, Sadak eta Murillok Pasquierrek egindako interpretazio historikoa zuzendu zuten: “Nafarroan, gobernu onerako legeak egiteko ardura, hauek ongi administra ditzaten erregeak hautatzeko ardura bezain zaharra izan da beti”.

Eztabaida amaiezina eta amaigabea

XVI. mendean hasmentan, konkistaren ondoren, “integrazio” kontzeptupean espazio zabala hedatu zen, borroka-gune bihurtu zena. Ez da egia Gaztelak Nafarroako erakundeak errespetatu edota bultzatu

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com

Nel Vidal Barral

Hizkuntza Normalizazioaren Langileen Koordinadorako presidentea

«Galizian, izan al zaitezke feminista gaztelaniaz biziz?»

Izan al gaitzke feminista eta galegoa ez defendatu? Izan al gaitzke galegoaren aldeko eta ekologista ez izan? Justizia sozialaren eta hizkuntza normalizazioaren arteko harremanaz arituko dira Galizian, hango udako ikastaroetan.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

UZTAILAREN 18, 19 eta 20an egingo dituzte *Justizia soziala eta normalizazio linguistikoa* izeneko jardunaldiak A Coruñaiko Carballo herrian. Besteak beste, feministak, sindikalistak eta ekologistak izango dira hizlari, haien mugimenduen eta galizieraren normalizazioaren arteko zubiak egin nahian.

Zergatik aukeratu duzue gai hori?

Antolatzen dugun zortzigarren udako ikastaroa da. Konturatu gara gainditutzat ematen genuena ez dagoela gaindituta.

Azaldu, mesedez.

Esan nahi dudana da teknikariok ez garela ari gizartean transmititzen transmititu beharrekoa, lan hori eginda zegoela uste genuelako. Ustea da gizarteak hizkuntza normalizatzeko ekintzak ontzat hartzen dituela. Baina uste horri bueltak ematen hasi ginen PSOE eta BNG lau urtez gobernuan egon zirenean, galegoa normalizatzeko hainbat neurri hartu zituztenean. 16 urtez PPK agindu zuen ordurako. Normalizazio linguistikorekin kontrako taldeak sortu ziren, lehen



CTNL-K UTZIA

“Ekologistek, sindikatuek, feministek... galegoa erabili dute aldarrikapen hizkuntza, nahiz eta egunerokoan haien hizkuntza gaztelania izan”.

ez zeuden eta uste genuen bolada batez baino ez zutela iraungo. Uste izan genuen haien diskurtsoa ez zela inora iritsiko. Hartutako neurriak ez ziren ondo esplikatuta, zeren gizarteak ez zituen ondo ulertu. Eta agian, hor dago kontua: jendeak ulertu behar du zergatik diren hizkuntzaren aldeko neurriak onak.

Euskal Herrian, neurriak ulertzen ez dituztenek besteei esaten die hizkuntza inposatzen ari direla.

Galegoaren alde hartzen zen neurri bakoitzeko kontrako erreakzioen bat zegoen, esanez inposizioa

zela. Ordura arte horrelako diskurtsorik ez zen atera hemen, ez behintzat jendarean. Normalizazio linguistikoa kontu politikoki zuzena zen. Alde ez egonda ere, inork ez zuen kontrakoa adierazten. Gezurra bizi ginen, zeren kontrako diskurtsoa atera eta jendartean barneratu zen.

Diskurtsoa landu behar.

Iazko ikastaroan galegoaren aldeko argumentuak lantzen aritu ginen. Bitxia da, galegoaren aldeko argumentuak jorratzen hasi behar al genuen guk? Bada bai,

berriz hasi behar genuen hitz egiten hortaz. Galegoa defendatzen dugu gure herriaren hizkuntza delako, hemen sortua delako, historikoki baztertuta izan delako... Alegia, justizia soziala delako galegoa defendatzea. Gure diskurtsoan nabarmendu behar dugu, ez justizia soziala hizkuntzarekin soilik lotzea, baizik eta justizia sozialaren esanahi orokorra jendarteari helaraztea. Hori lortuz gero, gizartearen gehiengoak hizkuntza normalizazioaren alde egingo du. Horretarako garbi eduki behar dugu zergatik defendatzen dugun hizkuntza.

Nolako harremanak dituzue gizarte mugimenduekin?

Orain arte aldarrikapen mugimenduek galegoa erabili dute aldarrikapen hizkuntza moduan. M15 arte ez da inoiz aldarrikapen publikorik egin gaztelaniaz. Ekologistek, sindikatuak, feministek... galegoa erabili dute aldarrikapen hizkuntza, nahiz eta egunerokoan haien hizkuntza gaztelania izan. Hizkuntza aldaketa hori ez dago aztertuta eta interesgarria litzateke ikertzea.

Hizkuntza aldaketa ontzat ala txartzat hartu behar dugu?

Ona da, nahiz eta ez den nahiko genukeen onena. Egokiena izango litzateke hizkuntza aldaketarik ez egitea, oinarrizko hizkuntza galegoa izatea. Baina aldaketa ez da gertatzen aldarrikapen mugimenduetan bakarrik, diskurtso publikoetan, adibidez politikan ere, horixe gertatzen da. Herri, eskualde eta nazio mailako lider politikoen, adibidez PSOE eta PPkoen, bizitza pribatuan gaztelaniaz baino egiten ez dutenek, jendaurreko lan politikoan eta hauteskundeetan galizieraz egiten dute. Beraz, ez da onena, baina ez da txarra gehiengoarengana jotzen dutenean galegoz egitea.

Udako ikastaroetan feministek, sindikalistek, sexu askapeneko militanteek hitz egingo dute. Nola egiten dira zubiak horrelako mugimenduen eta hizkuntzaren aldeko mugimenduen artean?

Galizia herri txikia da. Mugimenduak ez dira zirrikiturik gabeko tokiak, ezta gutxiagorik ere. Batzuek besteekin loturak dituzte. Laura Bugalho CIG sindikatuan Emigrazio idazkaritzan ari da lanean, eta era berean, sexu askapenerako borrokan dihardu. Isabelle Kerdudo ekologia munduan dabil



Hizkuntza Normalizazioaren Langileen Koordinadorak (CTNL) antolatutako udako ikastaroetan, 2011n.

eta aldi berean galegoaren aldeko lanean ari da.

Gune horiek baliatu behar ditugu harremanak egiteko, loturak eraikitzeko eta gero besteei helarazteko. Hizkuntzaren defentsan lan egiten dugunak gu modukoez inguratuta gaude, baina ekologismoan dabilena eta hizkuntzarekiko kontzientzia duena, ez da derrigorrez sentsibilitate linguistikoa duen jendeaz inguratuta egongo. Guri asko interesatzen zaigu tankera horretako jendearengana hurbiltzea, haien bizipenak ezagutzea; sentsibilitatea baitu ekologiarekiko eta hizkuntza-

rekiko. Pertsona horren bidez irits gaitzke hizkuntza kontzientziarik ez duten taldeko kideengana.

Inkoherentziak eta koherentziak garbi ikusten dituzu. Zuk esan duzu matxista izatea eta galegoa defendatzea ez datozela bat.

Mugimendu ekologistak ikusaraziko du ekologismoa bidezkoa dela, guk ikusaraziko dugu hizkuntza normalizatzea bidezkoa dela, eta feministek gauza bera egingo dute feminismoarekin. Hori hala izanda, zeharo inkoherentea litzateke gizabanakoak eremu baterako bidezkoa dena defendatzea eta besterako ere bidezkoa dena ez defendatzea.

Hots, matxista bazara ezin zaitzke galegoaren defendatzaile izan.

Esate baterako, izan al zaitzke feminista eta galegoa ez defendatu? Noski hala egin daitezkeela, baina ez da koherentea. Galegoaren alde egin dezakezu eta aldi berean ekologista ez izan? Hori ere inkoherentea izango litzateke. Urrunago joanda (eta ez dakit muga non dagoen), Galizian izan al zaitzke feminista gaztelaniaz biziz? ■



Coordinadora de Trabajadores/as de Normalización da Lingua

Hemen euskara teknikari deitzen ditugunak han hizkuntza normalizaziorako langileak dira. CTNL irabazi asmorik gabeko elkarte da eta Galizia osoko galego normalizatzaileak biltzen ditu. Borondate hutsean sortutako elkarte da, administrazioak utzitako hutsunea bete nahi duena. Alegia, Galiziako erakunde publikoek ez dute sortu teknikarien sarerik. CTNL koordinadorak bi helburu ditu: batetik, langileen trebakuntza gabeziak betetzea, eta bestetik, haien artean sare lana egitea hizkuntza politikak, ekintzak eta beste koordinatzeko eta elkarbanatzeko.

Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elbiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-arlako euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legeari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”



'Made in Galiza' euskaraz

SÉCHU SENDE soziolinguista galiziar-
rrak argitaratutako liburua da *Made in Galiza*. Txerra Rodriguezek bere
blogean jakinarazi digu euskarara
itzuli duela eta irailean Txalaparta
argitaletxearekin aterako duela.
Liburuaren hitzaurrea irakur daiteke
euskaraz Rodriguezen blogean
(www.blogak.com/garaigoikoa).

Rodriguezek bere blogean adie-
razi duenez, "hizkuntza kontuetan
beti ere, lepoa ekialdera bihurritzen
dugu gehienetan. Gure ispilua ez
da izaten askotan mendebaldean

dagoen herri galiziarra" eta gonbite
txikia egin nahi izan du Senderen
liburua itzulita. Handia da gero,
ARGIAK ere ekialdera lehenago
begiratzen du mendebaldera baino,
baina aldizkari honetan, 46. orrial-
dean, Nel Vidal Barral galiziarra
elkarrizketatu dugu, hizkuntza kon-
tuak hizpide.

Séchu Senderengana itzuliz,
soziolinguista galiziarrek umorea
asko erabiltzen du galegoari buruz-
ko aurrejuzkuak eta topikoak han-
kaz gora jartzeko, eta besteak beste,
Guía Sexual da Sociolingüística liburua
argitaratua du. Hori ere euskarara
itzulita dago.

605.000 euro gutxiago euskarazko hedabideentzat

EUSKO JAURLARITZAK 4.875.000
euro emango ditu euskaraz lan egi-
ten duten prentsa, irrati, telebista
eta Interneteko hedabideentzat. Iaz
5.480.000 euro eman zituen.

Eguneroko prentsa inprimatuari
zuzendutako sailean 1.820.000 euro
emango ditu Jaurlaritzak. *Berriak*
1.449.250 euro jasoko ditu, *Hernani-
ko Kronikak* 31.523 euro, eta dozena
erdi *Hitzek* gainerakoa.

Euskara hutsezko aldizkari inpri-
matuei dagokienez bi azpi-multzo
daude. Batetik, euskararen esparru
geografiko osoan zabaltzen diren
informazio orokorreko aldizkariak
zein aldizkari espezializatuek
1.137.500 euro jasoko dituzte. Tar-
tean da, adibidez, 323.982 euro
jasoko dituen ARGIA aldizkaria.

Bestetik, udalerrri, eskualde eta
lurralde jakinetan zabaltzen diren
informazio orokorreko aldizkariak
704.000 euro jasoko dituzte. Diru
kopuru horren zatirik handiena
(200.000 euro inguru) *Goienak* jaso-
ko du.

Internet bidezko hedabideek eta
berri agentziek (irrati eta telebistak
atal honetan sartzen dira) 485.500
euro jasoko dituzte. Horien artean
daude, besteak beste, Hamaika
sarean egitasmoa (39.622 euro),
Berria.info (37.187 euro),
Argia.com (36.494 euro) eta Biz-
kaie.biz (28.988 euro).



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

ELA eta LABen arteko konponezina gainditu beharra

LAB sindikatuak 45.000 afiliatu ditu, Euskal Herriko lurralde guztietako-
ak. Duela lau urte baino ordezkartza zabalagoa du orain. Joan den
asteen zortzigarren biltzerra egin du *Eraiki dezagun. Orain da garaia*.
Langileon Euskal Herria leloarekin. Biltzerra egin da gizartean eta politi-
kan testuinguru garrantzitsua dagoenean. Finantza eta ekonomia krisia
larriagotzen ari da langabezia, pobrezia, bazterketa soziala eta marjina-
zioa handitzen ari diren heinean. Era berean, gobernuek eta euren
medioek sindikalgintza abertzalearen kontrako mezuak jaurtitzen dituzte.
Eszenatoki politikoa aldatuz doa, ezker abertzalea sartzen ari baita Gipuz-
koako Aldundia eta Donostiako Udala gisako erakunde garrantzitsuen
gubernuan, eta Sortu ere legalizatu egin dute.

Testuinguru horretan, jadanik hainbat greba sustatu dituen sindikalgin-
tza abertzaleak, zeregin asko dauka oraindik eredu ekonomiko, politiko eta
sozial berriaren alde egiteko, beste fronte batzuek arbuizaten duten Euskal
Herriaren subiranotasunaren errespetutik, gainera. Norabide horretan,
LABen biltzarrak aliantza tekniko-estrategikoa proposatu du sindikalgintza
abertzalean, beharrezkoak diren aldaketa politiko eta sozialek funtsezko
zutoinak izan ditzaten. ELA eta LABen arteko ekintza bateratua hautsi egin
da azken hilabeteetan. Biltzar honen ondoren, konponezin hori gainditu
behar da. Bi sindikatu abertzaleen artean 150.000 afiliatu baino gehiago
dituzte, aktibo garrantzitsua da. Sindikatuek eszenatoki honetan izan behar
duten paperaz eta estrategiaz adostasunera iritea, Euskal
Herriko etorkizunari egin dakiekeen ekarpen politiko onena
litzateke. Horretarako, protagonismo oro albo batean utzi eta
kapitalismoaren kontra zuzenean borrokatu behar dute.

Juan Mari Arregi



LUA arkitektoak
hirigintza
nirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Batasuna, setiotik jauregira

SORTU-REN legeztatzeak ez du ekarriko ondorio politiko handirik epe motzean, esate baterako Bilduren legeztatzeak ekarri zuen moduan, orduan epaiak hauteskundeetako atea zabaldu edo ixten zuelako. Sortu Batasunaren oinordekoa da, eta honen ordezkari politiko-instituzionala Bildun eta Amaiurren ordezkaria dago egun. Eta EAEko hauteskundeetan EBHn izango da, orain Sortu moduan jada.

Une honetako bere ondorio politiko nagusia sinbolikoa da, Euskal Herrira begira eraikitako ilegalizazio harresiaren erorketa irudikatzen du. Eta hori gertaera handia da, bai herritarren multzo handi batek bere oinarriko eskubideak gauzatu ahal izango dituelako, bai apurka gauzatu beharreko bake prozesuan beste urrats sendo bat dakarrelako.

Egunerokoa, ondorio politiko zehatzenak Batasunako militanteek nozituko dituzte, dagoeneko beren jardura politikoagatik espezteratuak izateko arriskurik gabe aritu ahal izango direlako, edota beren ekimen politikoak etengabe kamuflatu beharrik gabe, aurrez aurre agertzeko debeku edo kutsatze beldurrik gabe.

Bai, ohartarazi dituzte adi ibili daitezen, eta horretarako Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ohar-

hesi zorrotzez jantzi du bere epaia. Baina naftalina usaina darie mehatxu-oharrei, joan den hamarkadako testuinguru gatazkatsuen kiras-ta, Espainiako iritzi publiko atzerakoienera botatako bazka.

Epaiak, Bateragune auzia design eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jazinto, Miren Zabaleta eta Arkaitz Rodriguez askatzeko giltza jarri du haien ziegetako ateetan. Argudio juridiko korapilatsuetan sartu gabe, argi da Sortu legezkoa bada, bere sorrera bultzatu zutenak kartzelan mantentzeak ez duela zentzu politikorik.

Auzitegi Konstituzionalak ebatzi du Espainiako Auzitegi Gorenak frogarik gabe utzi zuela legez kanpo Sortu, susmoa egi bihurtuz, baina batetik besterako egitateen bidea ondo finkatu barik. Argudio juridiko

**Iraganeko molde
abanguardiazaleak atzean
utzi eta bere jarduna
gizarte mugimenduekin
uztartzen asmatzen badu,
Sortuk potentzial handiko
mugimendu eraldatzailea
osa dezake**

berdintsuekin, nekez frogara daiteke Otegi eta beste lauak ETaren tresna edo etakide zirenik. Bestela esanda, epai hori emateko Auzitegi Nazionalak eta Gorenak frogarik ez zuten, zigorrarekin errugabetasun printzipioa urratu dela ondorioztatu daiteke, eta beraz, libre utzi beharko lituzkete.

Horrek badu logika, baina ez da bihar-etzi gertatuko, bistan da Espainiako iritzi publikoa bere onera ekartzeko denbora behar duela. Lehenik epaia aztertze erabakia onartu behar du Konstituzionalak eta gero ekin. Sorturen epaiak Espainian ekarri duen zalaparta mediatikoarekin, ez dirudi helegitea onartzekotan ere, berau laster batean landuko litzatekeenik. Gainera, ezin da ahaztu Konstituzionala berritzea dela eta Sorturen epaian ere sei epaile alde agertu direla eta bost aurka.

Edonola, etorkizunak atek parez pare zabaldu dizkio Sorturi. Hiruzpau urte atzera eginez, baikorrenak ere nekez irudikatuko zuen orduko Batasuna setiatuak horren etorkizun oparoa izan zezakeenik. Iraganeko molde abanguardiazaleak atzean utzi eta bere jarduna gizarte mugimenduekin uztertzen asmatzen badu, Sortuk potentzial handiko mugimendu eraldatzailea osa dezake.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Bixente Serrano Izko

Gure estratega sendoa

Grezia bezain zaharra, omen, demokrazia, baina Grezian hain zuzen “demokrazia berria” planteatzen duen alderdi batek irabazi berri ditu hauteskundeak. Jakinik gutxi gora-behera zer den demokrazia, susmagarri, guztiz, egiten zaigu denoi demokrazia berriaren ideia. Eta hala da greziar kasuan, kontserbadoreen irtenbidea baita: jakina denez, demokrazia, bere soilean, inoiz ez da inongo belarri kontserbadoreetan ongi sartu, eta zaharberritu behar dute kontzeptua: demokrazia, alegia, edo bateragarri da ekonomiaren tiraniarekin edo ez da demokrazia, Europan ez dago lekurik bankuen jabeen mende jartzen ez den demokrazia-erentzat. Horratx demokrazia berria. Ekarpen izugarri sakona, iraultzailea, pentsamolde politikoaren historiara. Zeinarekin bat egiten duen PASOKek, greziar sozialdemokraziak, berau ere beti berritzaile, beti iraultzaile ideien arloan, denok dakigun bezala.

Ez zaio atzetik ibiltzen PSN, Roberto Jimenez estratega politiko handiaren eskutik. Formula asko saiatu du buruargi honek (I)astargia hartu zuenetik. Lehenbizi, Sanz demokrata berriaren gutxiengo parlamentarioari sostengua ematen, nondik eta gehiengo zen oposizio batetik, nola eta oposizioa gehiengoari bridak jarritz, nafar demokrata berriek gobernatu ahal zezaten; zaila ulertzeko demokrata zaharregiak bide ziren PSNren boto-emaile tradizionalentzat: ikasle bihurriak inondik ere, eta nota txarragoak oparitu zizkioten Jimenezi hurrengo azterketetan.

Baina ez zuen amore eman gure sozialdemokrata berritzaileak, eta koska bat gehiago ematen saiatu da orain berri arte: are demokrata berriagoa den Barcinaren gobernuan sartzen, alegia, berriro ere oposizio antzura kondentatuz parlamentuan gehiengo osoa zuten demokrata zaharrak. Emaitzak, dakizkigunak: hanka egin behar izan du demokrazia berria islatzen duen UPNrekiko gobernu kidetzatik. Hanka egin, baina horixe herren: ez du bere kabuz egin, bota egin du amandreak.

Denak ematen du aditzera bertze formula berriago bat saiaturiko duela PSNk hemendik aurrera: benetako oposizioa egin, bidera-



JOSU SANTESTEBAN

tu, baina hauteskunde berrietara behartu gabe. Oposizio tinkoa, irmoa, baina erantzulea, demokrazia berriaren alde beti ere. Zulo ekonomiko sakonetik ateratzeko demokrata berriek, bankuen bozeramaileek, jorratu nahi dituzten bideetan erantzule izan nahi ez, parlamentuan bide horiek itxiz, omen, baina bideginei lanpostuak kendu gabe. Denok dakigu: bideginek xendra dezente asko jorra ditzakete parlamentua saihestuz; hainbat murrizketa sozial berri egin dezakete dekretuz, parlamentuak izan gabe zertan eztabaidatu. Baina gehiago egin behar dute euren dogmatismo neoliberaletik, printzipioz erabaki parlamentarioak behar ez duten bertze murrizketak egiten baitituzte, adibidez. Bide horiek guztiz ixteko prest egonen al da Roberto Jimenez, jakinik bideginei lanpostua kentzea suposatuko lukeela, hauteskunde berriak suposatuko lituzkeela?


European ez dago lekurik bankuen jabeen mende jartzen ez den demokraziarentzat. Horratx demokrazia berria. Zeinarekin bat egiten duen PASOKek. Ez zaio atzetik ibiltzen PSN, Roberto Jimenez estratega politiko handiaren eskutik

Lehen aldiz foru hauteskundeak gertatu-ko lirake Estatu eremuko udaletakoentzatez kanpo, beti UPN-PPri eta PSNri hain onuragarria gertatu zaien itzalpetik kanpo. Eta baliteke EAEkoekin batera, hor nonbait, egin behar izatea. Orain arte Roberto Jimenezek bere maisulanagatik espero ditzakeen nota jaitsierez gain, Patxi Lopezen efektu ez oso prometagarria hegan ibil daiteke Nafarroan ere. Zer sorpresa berri, zer saio berri eskainiko dizkigu demokrazia berriaren PSNko estratega sendo honek, ataka horretan bere burua ez ikusteko? ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Andoni Arcilla Group

“Hilkorra ez banintz”

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



888 txiste Kike Amonarriz

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2327. Argia)

Ibernalo

- Jose Mari Etxezarreta Zelarain (Donostia)

San Telmo

- Regina Tolosa Agirrezabala (Amezketza)
- Josu Belar Unamuno (Arrasate)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)

Planetario

- Juan Karlos Calleja Prada (Gasteiz)
- Jone Santamaria Azpiri (Donostia)
- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)

Bluestock

- Xabier Igoa Eriz (Aramaio)
- Larrako AEK Euskaltegia (Bilbo)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)
- Bernardo Azpillaga Ariztimuño (Errezil)
- Irati Lujua Etxenike (Etxalar)

Kirolaz Badakit

- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)
- Elixabete Perez Gaztelu (Oiartzun)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia



*Astero gero eta
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

Jada 57.000* gara.
Urtebetean %7,1eko igoera.

